

400 pezeta.
15 libera

hik hasi

euskal
heziketarako
aldizkaria

23

1997ko ABENDUA

Hezkuntzako
aldizkariak
gaia

Humanitateen inguruan
elkarrizketa

Haur-jolasen abestiak
Gehigarria

Ikonoteka baten
antolakuntza
Praktikatzen

Argitaratzailea:

XANGORIN

Zirkuito Ibilbidea,
2. Pabilioia. 20.160
LASARTE-ORIA
GIPUZKOA.
Tel: 943/ 37.15.45
Fax: 943/ 36.10.48

Lege Gordailua: SS-1001/95
ISSN: 1135-4690

Koordinatzailea:
Jose Mari Auzmendi

Erredakzio burua:
Ainhoa Azpiroz

Erredakzio batzordea:
Itziar Barriola, Mikel Estonba,
Arantxa Goiburu,
Mari Karmen Irastorza,
Kristina Mardaraz,
Josi Oiarbide, Juanjo Otaño,
Fito Rodriguez, Maite Saenz,
Xabier Sarasua eta
Arantxa Urbe.

Aholkulariak:
Imanol Agirre, Begoña Bilbao,
Mariam Bilbatua, Xabier Isasi,
Irene Lopez-Goñi,
Izaskun Madariaga,
Kepa Perez Urraza,
Lore Erriondo,
Lontxo Oihartzabal eta
Pruden Sudupe.

Diseinua:
Zart

Maketazioa, fotomekanika:
Xangorin.

Inprimategia:
ANtza S.A.L.

Azaleko argazkia:
Ikor Kotx

Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa Sailak Onetsia
1.997/XI/18

Kopurua: 3.500 ale

5 editoriala
6 kronika

8 gaia
ZER IRAKURRI DEZAKEGU IRAKASLE,
IKASLE ETA GURASOOK?

18 ekarpena
Gabon-sasoian: "Oles eta oles".

19 gehigarria
Haur-jolasen abestiak.

27 elkarrizketa
Humanitate dekretuaren inguruan.
Mahaingurua

35 berriak

39 praktikatzen
Ikonoteka baten
antolaketa (II)

hik hasi ez ditu bere gain hartzen
laguntzaileek plazaratutako iritziak
ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

COUNCIL OF EUROPE-
CONSEIL DE L'EUROPE  Strasbourg
1996ko maiatzaren 22

Aldizkari honek "aipamen berezia" jaso
du Europako Kontseiluaren "lurraldeen
arteko lankidetzarako sustapena" pro-
gramaren barruan.


EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Kazeta, Argitaerak eta Informatika Negutia

PRESIDENCIA
Secretaría General de Acción Exterior





Kaseta
1.500 pezeta/60 libera



Konpak diska
2.200 pezeta/88 libera

ESKAINTZA BEREZIAK

DURANGOKO AZOKAN:

Abenduak 5, ikasleen eguna

Kasetak 1.200 pezeta/ 48 libera

Konpak diskak 1.700 pezeta/68 libera

IKASTETXEA HARPIDEDUN BADA:

Nahi duen kopurua eska dezake salneurri hauetan

Kasetak 1.200 pezeta/ 48 libera

Konpak diskak 1.700 pezeta/68 libera

NORBANAKO HARPIDEDUNAK:

Kasetak 1.000 pezeta/ 40 libera

Konpak diskak 1.500 pezeta/60 libera

(Bidalketa gastuak barne)

Oliveri eta Unzeta jaunak, Hik Hasik, entzuna izateko eskubidea du

ABENDUA

e d i t o

r i a i a

B agenekien, bai jakin ere, bidea ez zela erraza izango. Hala ere, Hezkuntza arloan zeuden espazio hutsek kezkatzen gintuzten eta guk geuk iniziatiba hartzeko erronka eta beharra sumatu genuen geure baitan. Hiru urte daramatzagu Eskola Erki-degoa osatzen duten kide ezberdinen ahotsak entzun eta haien bozgorailu izaten. Gure sorreran agindu bezala fin bete dugu gure konpromezua hilabetero-hilabetero zenbaki bat kaleratuz. Euskal Baliabide Pedagogikoen GIDA liburua, topaketak, "haur-jolasen abestiak" musu-zinta eta CD, eta txirulaz jotzeko abestien bilduma gure hiru urteko lana borobiltzera datoz gainera. Ahalegin handiaren emaitza dira. Hik Hasi egitasmoa ilusioaren itzalean jaio zen eta hari esker eta adiskide askoren desordutako lanari esker gauzatu da. Kultura Sailak euskaraz argitaratzen diren aldizkariari ematen dien diru-laguntzetatik at gaude, deialdi hone-tatik kanpo uzten baititu pedagogiaz jarduten dutenak presezki. Xedapen honen ondorioz pairatzen dugun dis-kriminazioa orekatzeko Hezkuntza Sailako arduradunek eman dizkigu-ten hitzak ez dituzte bete. Euskal Baliabide Pedagogikoen gida

prestatzerakoan Hezkuntza Sailari proposamen zehatzak zuzendu bazi-tzaizkion ere, gidan betetzen duen proportzio berdinean doa Hik Hasie-kiko duen aintzat hartzea. Kritika ugari jaso ditugu sare publikotik gure gidan beharko lukeen eta izan ez duen trataeragatik. Baina zinez diogu, honen guztiaren ardurak badu erantzule bat eta erantzukizuna ez dugu gure bizkargain hartuko. Hik Hasik kanpoan jaso behar izan du etxean lortu ezin izan duen aintzapena. Honela, Europako Kontsei-luak eta Akitania-Euskadi-Nafarroa elkarlanerako erakundeen sari eta laguntzak jaso ditu. Bien bitartean aurten ere ez dugu ia ezer jasoko Hezkuntza Sailatik. Hik Hasik biltzen du bere ingurura nahikoa indar jarraitzeko. Eta orain-dainokoarekin halaxe frogatu dugu. Hala ere bada zer eta non hobetu eta hori ez dago Hik Hasiren esku soilik. Ezinbestean, Euskal Hezkuntza osa-tzen dugun kide guztion parte har-tzea behar dugu, zuek, Administra-zioa barne. Gure eskua, beti egon den legez, luzaturik duzue. Euskal Hezkuntzan erreferente bilakatu eta hainbeste harpidedun eta laguntzailereren babesa duen egitasmoa ezin duzue zokora-tzen jarraitu. Emandakoaren hitza bete eta akordio bat gauzatzea ezin-bestekoa da. Zuen esku dago.

Agindua zorra dela ahaztu ez duzuelakoan...



DBHren legeztapena eskuratzeko Iruñeko kaleetara joan beharra izan du Berako Labiaga ikastolak

k r o n



Espainolen eraso

Urteko azken hilabetetan eguraldia hoztu egin ohi da. Azaroan tenperaturen beherakada eta erauntsiak nabaritu dira, baina hezkuntza munduan giroa bero-bero dago. Humanitateak aldarazteko dekretu proposamena bere ondorioak ematen hasia da. Gobernuak aurrera jarraitzeko asmoa du. PSOE eta IUk, berriz, proiektua erretiratzeko eskatu diote hasiera-hasieratik. Eta bitartean, CIU eta PNV balantzaka dabilta. Lehenengo aldaketak egiteko eta negoziatzeko prest agertu ziren, eta orain, dekretua hobeto aztertu ondoren onartezina dela konturatu dira. Gaitzerdi! Inaxio Olverik egin dako adierazpenetan hiru arrazoi aipatu ditu dekretuaren erretiratzea eskatzeko: konpetentzia murrizketa, didaktika zioak eta prozedura onarte-

zina. Lehenengoari dagokionez, Madril-ek eduki minimoak ezartzeko ahalmena du (%45) eta dekretuarekin dena berak zehaztu nahi du. Didaktikoki, berriz, guztiz memoristikoa eta erreformaren izpirituaren aurkakoa da. Honez gain, komunitate autonomoetako Hezkuntza sailburuek dekretuaren berri prentsaren bidez jakin zutela adierazi dute, eta prozedura hori ez dute egoki ikusi inolaz ere.

Nafarroan, berriz, Javier Markotegi Hezkuntza Sailburua ados agertu da Aguirreren proposamenaren aurrean, egokia ikusi du.

Baina hau gutxi balitz, zeharlerro berri bat ere ezarri da dute PPkoek: "espíritu militar" delakoa. Horrela ikasle guztiek "Espainiak zer balio duen eta espainiar izatea zer den" ikasiko omen dute.

Baina gauzak ez dira hor amaitzen, albiste gehiago ere jaso ditugu. EAE eta Kataluniako PPK Madrilgo Gobernuari euskarazko eta katalanezko hezkuntza geldiarazteko neurriak hartzeko eskatu zieten. Garrantzitsua omen da D ereduaren gorakada geldiaraziko duten neurriak hartzea.

Horrelako ideia eta asmoen aurrean ez gaude amore emateko perst inolaz ere. Euskal Herriaren historia, kultura eta euskara ezin dira bapatean liburutatik, arbeletatik edo ahotatik kendu. Baina denok batera egin behar dugu aurrera, irmo eta sendo.

Ikastola berrien inaugurazioak Iparraldean

Iparraldean ikastola anitz ari dira inauguratzen azken aldian. Hilabete honetan Angeluko Ikastolaren txanda izan da. Hilaren 8an haur, guraso eta hautetsiak elkartu eta egoitza berria inauguratu zuten. Lau urteko elkarrizketen ondoren udalak lurra ezarri eta Kimua taldeak eta ikastolaren lagunez etxea eraiki dute. Guztira 850.000 liberra, 100 bolondresen lana, Herri Urratseko dirua eta mailegu bat behar izan dira.

Kanbon ere, ikastolak egoitza berria inauguratu zuen hilaren 16an. Horrez gain, ikastolaren 20. urteurrena betetzen zen, eta dena batera ospatu zuten.

“Haurrak hezitzeko ez ezazu indarririk erabili. Jolastuz hezi daitezela. Horrela hobeto ezagutuko duzu bakoitza zertarako horniturik dagoen”.
(PLATON)

ik a

EAEko Hezkuntza Sailaren aurrekontuak



Berako ikastolatik Iruñeko kalera

Hilabete honetan Nafarroan protagonista izan direnak Berako Labiaga ikastolako ikasleak izan dira. Ehun ikaslek Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuko egoitzaren aurreko apartamentuak jaso zituzten klaseak azaroaren 13an. Ekintza honekin Labiaga ikastolako DBH lerroa legeztatu gabe dagoela salatu nahi izan zuten. 1994. urtean eskatu zuten lehenengo aldiz DBH lerroaren legeztatzea, eta oraindik ez dute baiezkorik jaso. Ikastolak DBH eskaini ahal izate-

ko legearen arabera baldintza guztia betetzen ditu, baina Gobernuak ez du legeztatzen. Gurasoak lan asko egiten ari dira “DBH alegala” aurrera ateratzeko. Oso garbi daukate legeak eskatzen duena betetzen dutela eta Nafarroako Gobernuak legez egokitzen zaiena ukatzeko arrazoirik ez daukala. Hainbeste urtetan borrokatu ondoren ez daude amore emateko prest. Gainera aurtan 20 ikaslek DBH amaituko dute eta legeztatzen gabe nola lortuko dute titulazioa?

Egoera behin betiko bukatzeko mobilizazioak hasi dituzte. Lehenengo pausoa DBHko ikasleekin Iruñeko kalera joan eta klaseak bertan ematea izan da. Nafarroako Administrazio Auzietarako Auzitegian ere salatu du egoera, baina auztegi honetan pilatuta dauden auziak kontuan izanda, bide luzea izango da hemengo. Horrez gain, abenduaren lehenetik aurrera Hezkuntza Departamentuaren aurrean egunero protesta egingen dute, 10.00etatik 12.00etara. Nafarroako Ikastolen Elkarteko ikastola bakoitzak protestaldiko txanda bat egingen du.

Inaxio Oliverik Hezkuntza Sailaren datoren urteko aurrekontuen berri eman du. Guztira 204.035 milioi pezeta izango ditu, aurtan baino %4,4 gehiago. Aurrekontu honek EAEn hezkuntza erforma behin betiko ezartzeko aukera emango duela aipatu zuen. Diruaren gehiengoa, 96.307 milioi pezeta, 19.055 irakasle eta langile ordaintzeko erabiliko dira. EHUaren trasferentziarako, berriz, 25.907 milioi pezeta. Bekatan 9.660 milioi gastatuko ditu: 2.865 milioi hezkuntza ez unibertsitarioko 80.000 ikasleri laguntzeko izango dira, eta beste 3.773 milioi ikasle unibertsitarioentzat. Beste 485 ikaslek atzerriko hizkuntzak ikasteko laguntzak jasoko dituzte. Eskola garraiorako 2.000 milioi erabiliko dituzte. Irakasleen euskalduntzeak iazko kopuru bera jasoko du, 3.869 milioi pezeta, baina ehun irakasle gehiago hasiko dira Irale euskalduntze programan.

GAIA

Zer irakur dezakegu iraka

Liburuak, aldizkariak, gidak, diptikoak, triptikoak, foiletoak... zenbat informazio iturriekin topatzen ote gara egunero! Interesgarriak, erakargarriak, erabilgarriak, alferrikakoak, eskasak, zaharkituak, berri-berriak... produktu bera

bakoitzarentzat desberdina izan liteke. Aspaldiko esaera da gustuez ez dagoela ezer idatzirik, eta egia da. Bakoitzaren lana, afizioak, denbora eta beste hainbat eta hainbat faktoreren arabera gauza batek milaka aurpegi eta kolore izan ditzake.

Gure nahia ez da kolore batzuk gainjartzea eta beste batzuk estaltzea, koloreztatu daitezkeen produktu horiek erakustea baizik. Gero norberak hartuko ditu gustuko dituen margoak.

Komunikazio euskarrien aniztasun hori irakaskuntza arloko aldizkarietan ere ematen da, beste hainbat arlotan bezala. Guztioi eragiten digu hezkuntzak; irakasleoi, gurasooi eta neska-mutilei. Momentu eta egoera bakoitzak bere kezka, beharra eta eskariak ditu, eta horiei erantzuteko daude aldizkariak.



sle, ikasle eta gurasook?

Alde batetik, ikasleei zuzendutako aldizkariak daude; bestetik, gurasoentzat egiten direnak; eta azkenik, irakasleentzat argitaratzen direnak. Guztiei begirada bat emango diegu, aldizkari hauen orrietan murgilduko gara.

Etxeko txikientzako argitalpenak

Eskolako lehen urteetan liburuak ez dira gelaz jabetzen, baina hala eta guztiz ere pixkanaka-pixkanaka beraien lekua eginez joaten dira. 4 urtekin eta 14 urtekin irakurtzen ditugun liburuak ez dira berdinak, noski. Adin bakoitzari berea dagokio, eta horregatik daude merkatuan Xirrixta, Kometa, Ipurbeltz eta Kili-Kili.

Xirrixta eta Kometa

Bi aldizkariok Xirrixta-zaleak elkarteak argitaratzen ditu. Xirrixta-ren ibilbidea 1992. urtean hasi zen Euskal Kultur Erakundearen eskutik, baina handik bi urtera bereiztu egin ziren eta Xirrixta-zaleak elkarte sortu zen aldizkariarekin jarraitzeko. Aintzane Lasarte kudeatzaileak lehenengo pausoak ongi gogoratzen ditu. "Gure irakurlerik ugariena Hegoaldean zegoela konturatu ginen, haur gehiago baitaude bertan. Horregatik Hegoaldean gehiago zabaltzea behar genuela konturatu ginen, nahiz eta betidanik harremanetan egon bestaldeko jendearekin. Baina zirkulazio eta komertzializazio mailan zabaltzea egin behar genuela ikusita, 1996. urtean Letrazopa elkarte sortu genuen Hegoaldean. Urte berean sortu genuen Kometa".

Xirrixta 4-8 urteko haurrentzat argitaratzen da hilero eta Kometa 8 urtetik gorakoentzat hiru hilabetetik behin. Hala ere, Aintzane Lasartek dioen bezala adin horiek orientatiboak dira. "Haur bakoitzak bere adina dauka eta batzuk

"Helburua haurrei irakurtzeak zenbat gauzatarako balio duen ulertaraztea da, eta ondorioz irakurzaleatasuna bultzatzea"



10 urtekin Xirrixta nahiago dute Kometa baino eskulan edo jolas gehiago dauzkalako".

Xirrixta da bi aldizkariotan osatuena, urte gehiago daramatzala kontuan harturik. 28 orriko aldizkari honen helburua haurrei irakurtzeak zenbat gauzatarako balio duen ulertaraztea da, eta ondorioz irakurzaleatasuna bultzatzea. "Horregatik hizkuntza desberdinak lantzen dira: ipuinetan erabiltzen den irakurtzekoa erreportaietako informatiboa, aginterazkoa, komiki batean erabiltzen dena eta abar" dio Aintzane. "Erosketak egiteko zerrendatik hasi eta ipuinak egitera bitartean, adibidez, hizkuntza mota desberdinak daude. Haurrak modu desberdinetan idazten dela ikusten du, lortu nahi denaren arabera hizkuntza mota bat edo bestea erabiltzen dela". Horrez gain, haurrak Xirrixta irakurri eskulanak egin ditzakeela ikasten du, edo jolasteko gaiak lortu ditzakeela. Baina horretarako irakurri egin behar du eta gauzak nola egiten diren ulertu. Aintzane azpimarratzen duen bezala "errezeten atalean ere irakurtzen jakin behar da. Ez da nahikoa barazkiak ikustea, irakurtzen jakin behar da gero jateko". Irakurketak ate asko irekitzen dituela erakutsi nahi zaie haurrei. Hori lortu ahal izateko arlo desberdinak eskaintzen ditu aldizkariak: komikiak, jolasak, ebakinak, ipuinak, erreportaiak... euskarri anitza da.

Aniztasun horren barruan hiru hila-betean behin gurasoei zuzendutako orrialde batzuk ere argitaratzen ditu erdialdean. "Ez dakigu irakurtzen dituzten edo ez, baina guk liburu batzuen erreferentziak emateko aprobe-txatzen ditugu. Haurrek ez dute bakarrik irakurtzen 4-8 urte bitartean, gurasoekin baizik. Horregatik, gurasoei gomendioak zuzentzen dizkiegu".

Dena dela, aldizkaria batez ere irakasleei zuzenduta dago eta irakasleentzat duen balio zera da: gelan hurrekin egiten dituen gauzak hurrak etxean egin ditzakela jarraipena emanaz. “Eskolako gauzak beste giro batean egin ditzakete eta horrek balio handia dauka eskolarako”. Ez da oinarritzko materiala, osagarria baizik. “Ez da ikasteko gaia, ez da ikasteko tresna, jolasteko tresna, plazererako tresna baizik, beti ere bizitzako gaietan oinarrituz. Ikasketa prozesurako baliagarria da zentzu horretan, eta ez hainbeste material didaktiko bezala”.

Kometari dagokionez, berriz, 8 urte-tik gorako haurrentzat da berez, eta irakurketa da bere ardatza. Aldizkariaren gehiengo 40 orriko ipuinak osatzen du. Kapituluak banatuta dago eta horrek irakurketa errazten du. “Liburuak ez ditugu jarraian irakurtzen, zatika baizik. Ipuin honekin hori erakutsi nahi dugu, eta horregatik banatzen dugu kapituluak, ipuina non utzi dezaketen erreferentzia puntu bat emateko”. Ipuin honez gain, txisteak, errezetak, jolasak eta abar daude. Guztira 52 orri ditu Kometak.

Bi aldizkariok kaleratzeko lau lagun ibiltzen dira: bi erredakzio lanetan, idazkaria eta komertziala. Baina kolaboratzaile askoren laguntza jasotzen dute, bai marrazkiak egiteko, ipuinak idazteko...

Aldizkaria Frantziako Tolosa herrian dagoen Milan Press-i lotuta dago. Argitaletxe honek haurrentzako bi aldizkari argitaratzen ditu eta haietatik jasotzen dituzte zenbait lan. “Azpiegitura handia daukate, pedagogiak, irudi aztertzaileak eta beste hainbat jende egiten du lan. Hemen ere posible litzateke horrelako zerbaite egitea, baina oraingoz behintzat ezinezkoa zaigu. Gure helburua oinarri hori hartu arren, lan eta orrialde gehienak hemen sortzea da”. Xirrixtak helburu hori nahikoa lortu du, 28 orritatik 10 Euskal Herrian egiten baitira, hemengo idazle eta marrazkilari zenbaitzurekin. Kometan, berriz, 40 orriko ipuina hemen sortutakoa izan dadin saiatzeko dira. Iaz, esaterako, Juan Kruz Igerabidek egin zuen eta aurten ere beste norbaiten bila dabiltzala

komentatu digu Aintzanek. “Ez litzateke oso normala izango inportatutako lanekin egitea aldizkari osoa. Hemengo sortzaileei ere bide xume bat irekitzeko balio behar du gure lanak”. Ez dira elkarte handia eta ezin dute miraririk egin, baina euskal literaturan euren hondar alea jartzen ari dira. “Jende askok egin du gurekin lan eta oso gustura, baliagarritasuna aurkitu diote egindakoari. Irakurleen aldetik eta euskal kulturako jendearen aldetik ere lanean jarraitzeko animoak jasotzen ditugu”.

Pixkanaka-pixkanaka Xirrixta eta Kometa leku gehiagotara iristen ari dira. Egun 3.000ko tirada daukate, eta bi aldizkarien artean 3.500 harpidedun. Liburutegi asko harpidedun dira eta ikastetxeak ere gero eta gehiago. “Beraien liburutegian aldizkari hauek eduki behar dituztela konturatzen ari dira”. Liburudendetan ere egoten da, nahiz eta asko ez saldu, baina egon, egon behar dutela pentsatzen dute.

Aldizkariekin batera abenduan material berria kaleratuko dute: ipuin-kaseta. Xirrixtan argitaratuak izan diren zortzi ipuinekin osatutako kaseta izanen da.

Ipurbeltz

Duela 20 urte ekin zion Ipurbeltz aldizkariak. Durangoko azokan kaleratu zen, azoka Santu Guztien egunean egiten zen garai haietan. Asmo bat baino gehiago zuten Ipurbeltz kaleratzen hasi zirenak, baina bat zen nagusi: ikastolako hurrei baliabide bat gehiago eskaintzea. Indarrean zetozen ikastolak garai hartan eta materialak, berriz, urri. Bestalde, euskararen beraren molde biziak eskaintzea ere -ahozkoa, gehienbat- askoren gogoan zen. Artisten sorkuntzarako gogoia ere tartean zen, jakina.

Hasiera batean hamabostero argitaratzen hasi ziren, baina laister konturatu ziren hura ezinezkoa zela, eta hilerok kaleratzeari ekin zioten.

Miel Anjel Elustondo Ipurbeltzeko zuzendariak esan digunez “Ipurbeltz harpidetza bidez banatzen da. Horrela, haur eta gazte askoren etxera ezezik,



“ Denbora-pasa aldizkaria da sortzez Ipurbeltz, baina egunean-egunean indarrean diren gaiak ere jorratzen ditu”

liburutegi, eskola eta liburudendetara ere iristen da. Guztira 2.500 ale banatu ohi ditugu”.

Berez, 8-12 urte arteko neska-muti-

koei zuzendurik dago, nahiz eta hilero egiten dituzten inkestek adin horretatik gorako irakurleak ere badituztela erakusten duten. “Jakinarazi digute, adibidez, zenbait erreportaia -Spice Girls, Tamagotchia, Lady Diren heriotza, udalekuak...- DBH hasierako mailetan irakurri eta fenomeno soziologiko horien gainean eztabaidak lantzeko erabili dituztela”. Hileroko inkesta hauek DBHko ikasle batek egiten dituela adierazi digu Miel Anjelek, “bere ekimen eta borondatez eta ikaskideen laguntzaz”.

Atalei dagokienez, prentsaren atalak eta komikiarenak bereizi behar dira Ipurbeltzen. Atal bakoitzean sail desberdinak daude. Prentsa atalean, esaterako, “Bai mundu bitxia!” (EEBBtako Nobuyuki Fujiokaren kolaborazioak barne) eta erdiko erreportaia luzeak ditu. Horrez gain kolaboratzaile askok idazten dute: Kike Amonarriz (Txikikeriak), Enekoitz Esnaola (kirola), Begoña del Teso (zinea), Ixiar Oreja (musika), Raul López (“megabit” ordenadore saila) eta Xabier Etxaniz (liburuak).

Komikiaren atalean, berri, marrazkilari fin eta saiatu askok hartzen dute partea: Iñaki Holgado (Txorikeriak), Querejeta (denborapasak), Antton Due-so (Punki), Mattin (Kattalingorri), Jon Zabaleta (Haurren kolorezko kometa), Ruben Arozena (Triski eta Bi Luma), Gaston Majarenas (Naiara), Lopetegui (Kipe) eta Alvaro Matxinbarrena (Denbora galdu gabe).

Komiki eta erreportaia hauez gain, Hitzozkailua izeneko atala ere badago irakurleek beraien mezuak jartzeko.

Denborapasa aldizkaria da sortzez Ipurbeltz, baina egunean-egunean indarrean diren gaiak ere jorratzen ditu, irakurleentzako interesgarri direla jakinik. “Hori da helburua eta eskoletan denborapasa ezezik, eztabaidagai ere erabiltzen dituzte artikuluak” dio Miel Anjelek. “Gainera, euskara ortopedikoa baztertu eta hizkuntza bizi, fresko, aberats eta sueltoa erabiltzea da gure gogo”.

Begirada atzera zuzenduz Ipurbeltzek ibilbide luzea egin duela konturatuko

gara. Aurten 20 urte betetzen ditu eta bere ibilbide honetan zehar marrazkilari asko zaildu da Ipurbeltzen, arrakasta izan dutelarik beraien lanean, Euskal Herrian zein Europan.

Miel Anjelek dioenez “aldizkariak erantzun ona jaso du irakurleen aldetik, nahiz eta errespetu gutxiko zenbait erantzun jaso dituen helduengandik. Adibidez, Ikastolen jaialdian Xirrixta eta Kometa aldizkariekin batera haurprentsaren stand-a ezartzeko oztopo nabarmenak jarri izan dizkigute, edo zenbait lekutan aldizkaria sartzeko jarritako eragozpenak, sentiberatasun faltak eta abar”.

Oztopoak oztopo hemendik aurrera lehenari eutsiko diote eta marrazkilari finen harrobi izaten jarraituko du Ipurbeltzek. Horrez gain, Miel Anjelek aurreratu digunez etorkizunera begira kazetari gazteen sarea eratu asmo dute eta harpidetzak ugaritzea ere bai. “Internet sareari ere leku egin nahi diogu mundura zabaltzeko. Momentuz EEBBetan bertan eskatu digute, gainera”.

Mundu mailan zabaltzearekin batera, Euskal Herriko aldizkariekin elkarlanean jarduteko asmoa ere badute. Xirrix-tazaleak Elkartearekin batera Haur Prentsa sendotzeko ahaleginetan dabil-tza. Indarrak koordinatzen hasiak dira eta hortik aurrerakoa geroak esango du.

Irakasle informatuak

Irakasleon prestakuntzarako ikastaro eta liburu anitz daude. Baina material horrez gain, egunean egoteko eta azken berrikuntzeko berri jasotzeko modua aldizkariak ematen digute. Euskaraz argitaratzen direnak ez dira asko, baina daudenak ezagutzeak pena merezi du.

Jakingarriak

Orain dela 10 urte inguru kaleratu zuen Eskoriatzako Irakasle Eskolako Dokumentazio Zentruak Jakingarriak aldizkariaren lehen zenbakia. Lehen saio haren emaitza fotokopien bidez egindako bilketa izan zen. “Gure asmoa bilduta geneukan materiala jendearengana zabaltzea zen, jendea informatzea, infor-

“Gure asmoa bilduta geneukan materiala jendearengana zabaltzea zen, jendea informatzea, informatzearekin batera baitator pres-takuntza”



matzearekin batera baitator prestakuntza” gogoratzen du Nerea Alzola Dokumentazio Zentruko arduradunak. “Guretzat oso baliagarria zen hainbeste material izatea gure ikasleentzat, gure klaseetarako, mintegietarako... Baina zergatik ez zabaldu material hori?”. Galdera horri erantzunez hasi ziren lanean. Hori izan zen, beraz, lehenengo intentzioa. Gero, lana hobetuz joan ahal inprentara eramaten hasi ziren gaur egun Jakingarriak aldizkariak duen formatora iritsi arte. Gaur egun ikastetxe guztietara bidaltzen da.

Edukiari dagokionez aldizkariaren lehen zatia sumario antzekoa da; Berri bibliografikoak. “Informazio hau ematea oso interesgarria eta baliagarria da lanean dabilen irakaslearentzat datu asko agertzen delako”. Horrekin batera, zenbait artikuluren komentaketak ere egiten dituzte eta liburu berrien aipamenak ere bai. Lehen orri hauen ondoren aldizkariaren muina den Gai monografikoa egon ohi da. “Gai desberdinak izaten dira beti, baina egitura berdina da: sarrera, oinarrizko bibliografia eta artikulua”. Gaiak desberdinak izan arren, nahiko didaktikoak izaten dira guztiak ere. Orain arteko gaien artean “Lan proiektuak haur-eskolan”, “Eleaniztasun goiztiarra”, “Tratu txarrak” eta abar topa daitezke.

Aldizkaria 0-7 urteko hurrekin lan egiten duten irakasleei zuzenduta dago printzipioz. Baina askotan gaiak irakasle guztientzat dira interesgarriak, bai Haur Hezkuntzako irakasleentzat eta baita gainontzekoentzat ere. “Eleaniztasun goiztiarraren gaiak, adibidez, ikastetxe guztia inplikatzeko du, ikastetxearen proiektua izatea eskatzen du” Nereak dioen bezala.

Aldizkariaren erabilgarritasuna eta balioaz hitz egiterakoan Nereak ez du inongo zalantzarik. “Irakurtzen dutenentzat oso interesgarria dela iruditzen zait. Balorazio oso positiboa jasotzen ari gara. Gai batzuk oso interesgarriak dira eta material hori euskaraz izatea oso garrantzitsua da, altxor bat da”. Aleroi baten inguruan sakontzen dute, baina ez da aldizkari espezializatua. Jende

guztiarentzat da, hurrekin dagoen edozein irakasleentzat. Erabiltzen duten euskara ere goxoa eta samurra da.

Kukuluma

Urtarrilean Kukuluma aldizkari berria argitaratzen hasiko direla aurreratu ditu Nereak. Lehen argitaratzen zuten Kukumiraren jarraipena izango da eta Dokumentazio Zentruko Haur liburua eta Eskolako Biblioteka atalari lotua. “Kukumira argitaratzeari utzi egin genion eta eten hori apurtuz berriz hasiko gara, baina izena aldatuta”. Eduki aldetik antzekoa izango da: hasieran aldizkari ezberdinen sumarioa egiten dugu haur literatura eta haur liburutegien inguruan. Ondorengo orrietan haur txikiarentzat oso ona den idazle edo

“Dokumentazio Zentruko Haur liburua eta Eskolako Biblioteka atalari lotua dago Kukuluma”

ilustratzaile baten inguruko artikulua irakurri ahal izango da oinarrizko bibliografia ezagutuz. Biblioteka baten inguruko artikulua izango da hurrengoa eta azkenik argitalpen eta liburuaren berri emango dute.

Aldizkariako artikulua guztiak euskaraz izango dira, baina gaztelaniazko itzulpena ere izango dute. “Euskal Herrikanpora asko bidaltzen dugu eta gaztelaniazko liburuaren berri ere emango dugu. Horregatik erabaki dugu elebi-

duna izatea”. Haur liburuaren arloan harreman estua daukate Katalunian eta Madrilan. “Han IBI nazioarteko elkarrekin dago. Haur eta Gazteen Literaturaren inguruan zabaldutako elkarrekin da eta Euskal Herriko IBIren egoitza hemen daukagu. Horregatik, harreman dextentenduzkagukanpokoekin”. Komunikazio tresna bezala erabiliko dute Kukuluma.

Dokumentazio Zentrua

Dokumentazio Zentrua, Jakingarriak eta Kukuluma oso lotuta daude. Zentru hortatik irteten dira aldizkariak, bertako informazio-tresna dira. Orain dela 10-12 urte ireki zen eta informazio gune garrantzitsua bilakatu da. Eskolaren berrikuntza eta eskolaren euskalduntze prozesuan lagungarriak izan daitezkeen materialak eskaintzea da bere funtzioa. Horretarako bildutako material guztia ongi sailkatuta daukate. “Hainbat eta hainbat material daukagu zentruan, dena sailkatuta eta edozein irakasle kontsultatzeko moduan” Nereak azaldu digunez. “Liburuak, artikulua eta beste dokumentu batzuk daukagu. Dokumentu batzuk argitaratutakoak dira eta beste batzuk, berriz, aldizkari arrarotan aurkitutakoak”. Dena gordeta eta sailkatuta dago, horrek izugarriko garrantzia baitauka. “Materiala baldin badaukazu, baina zer daukazu ez baldin badakizu, alferrik daukazu”. Dokumentazio Zentruaren funtzioa materiala eta informazioa edukitzea da, baina hori aurkitzeko posibilitatea ematea ere bai.

Irakasleen prestakuntzarako hiru baliabideetegi eskaintzen dituzte: Haur Hezkuntza (0-7 urte), Hizkuntzen Didaktika eta Haur liburua eta Eskolako Biblioteka. Haur Hezkuntzaren inguruan Jakingarriak aldizkaria kaleratzen da eta Haur liburua eta Eskolako Biblioteka atalean Kukuluma argitaratzen hasiko dira urtariletik aurrera.

Argitalpen hauek denak aurrera ateratzeko Dokumentazio Zentruko kideak dabilta lan eta lan. Jakingarriak argitaratzeko Nerea Alzola eta Marian Bilba-

tua ibiltzen dira, eta Kukuluman Nerea eta Pello Añorga.

Adartzale

Adarra elkarteak Adartzale aldizkaria kaleratzen du, baina ez dauka aldikotasun finkorik. Urtean behin edo bitan kaleratzen da eta 400 bazkideen artean banatzen da Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan. Aldizkaria bazkide hauei zuzendua dago, eta gehienak irakasleak dira, baina Guraso Elkarteak ere badaude.

Emilio Ordoñez Adarrako kideak aipatzen digunaren arabera "aldizkariaren oinarria berrikuntza pedagogikoen berri ematea da, bai hezkuntza politikan bai gai pedagogikoetan. Ez gara gai sindikaletan eta politikoetan sartzen. Gure enfokea pedagogikoagoa da".

Horen arira mugitzen diren edukiak

"Aldizkariaren oinarria berrikuntza pedagogikoen berri ematea da"



atal desberdinetan banatzen dira: berriak, hezkuntza arloko etapa desberdinetako iritziak eta gaiak, elkarte barruko berriak eta 20-30 orritako gaia sakon garatua. Guztira 40-50 orrialde izaten ditu aldizkariak, baina kopurua ez da finkoa. Emiliok dioenez "gai edo dokumentu guztiek ez dute luzera bera eskatzen eta horren arabera aldizkariaren orri kopurua aldatu egiten da.

Aldizkaria euskaraz zein gaztelaniaz argitaratzen da eta Emiliok azaldutakoaren arabera "erabili beharreko hizkuntza politika ez daukagu oso garbi. Euskaraz idazten diguten kolaboratzaileen lanak euskaraz argitaratzen ditugu, eta gaztelaniaz daudenak ere bai batzutan. Guk, berriz, bietara idazten dugu". Hala ere, gaztelaniazko idatzien kopurua handiagoa da eta egileen asmoa diferentzia hori orekatzea da, hots, euskaraz gero eta gehiago idaztea.

Sei-zortzi pertsonen artean egiten dute aldizkaria, baina horrez gain elkarrean bertan lan gehiagotaz ere arduratzen dira. Aipatu beharra dago aldizkariari aparte urtean zehar liburuak, gidak eta beste hainbat material ere banatzen dituztela bazkideen artean.

Hezkuntzaren Oihartzuna

Izenburu honen pean Forum elkartearen aldizkaria kaleratzen da. Forum edo Euskal Herriko Hezkuntza Administrazioen Forum Europarra, European Forum on Educational Administration elkarteari atxekituta dago. Europa eta Estatu mailan lehenago sortu bazen ere, Euskal Herrian 1990. urtean eratu zen. Elkarrean helburua hezkuntzarekin, eta zehazki, ikastetxeetako administrazio eta gestioarekin zerikusia daukaten gaien inguruan eztabaidarako topagune izatea da. Maria Jesus Azkue Gestio Batzordeko idazkariak dioen bezala "hezkuntza eremuan Antolaketa eta Gestioaren garrantzia ulertarazi nahi diogu Hezkuntza komunitateari, eta horren inguruko berriak zabaltzeko".

Helburu hori aurrera eramateko sortu zen Forum elkarte. Mahainguru, topaketa eta hitzaldiak egiten dituzte gai honen inguruan eztabaidatzeko eta ikas-



"Hezkuntza eremuan Antolaketa eta Gestioaren garrantzia ulertarazi nahi diogu Hezkuntza komunitateari, eta horren inguruko berriak zabaltzeko"

teko. Baina horrez gain, informazio hori guztia zabaltzeko Hezkuntzaren Oihartzuna aldizkaria daukate.

Hau Euskal Herrian argitaratzen dena da, baina estatu mailan ere argitaratzen da baliokidea den “Gestión y organización de centros” izenekoa. Hezkuntza-aren Oihartzunak itxura berria hartu du aurten. “Orain arte foileto antzekoa zen eta gure artean, barnean erabiltzeko modukoa” dio Maria Jesusek. “Orain, berriz, aldizkari itxura du”. Laugarren zenbakia da azkenekoa eta bertan Forum elkartearen estatutuak, iragana, orain eta geroa, funtzionamendua eta antzeko berriak zabaldu dituzte. Azken asanbladan aldizkariaren arduratuko den talde-txoa sortu zen eta hemendik aurrerako zenbakietan bera arduratuko da aldizkariaren orriak betetzeaz. Maria Jesusek dioenez, “gure asmoa aldizkariari egitura finkoa ematea da: editoriala, artikulua, bazkideen iritziak eta iradokizunak jasotzeko txokoa, bibliografia aipamenak eta komentarioak eta abar”. Beraz, Forumaren ekintzen berri emateaz gain, beste ikastaro eta jardunaldien eta aipatu ataletako gaien berri emango da. Forumkideen asmoa urtean bi aldizkari ateratzea da, udaberrian eta udazkenean.

Zuzendaritza eta gestio inguruan dauden gaiak ukitzea da, azken finean, aldizkari honen xedea. “Helburua ez da metodologiak azaltzea, aipatutako arloko gaiak baizik. Adibidez, estatu mailako aldizkariaren eskola mailako marketinari buruzko monografikoa argitaratu zen teoriak eta esperientziak azalduz. Beste momentu batean “Emakumea eta zuzendaritza” gaia landu zen, baita “Zuzendaritza eta stress”, “Nola antolatu denbora”, “Nolako zuzendaritza behar da antolaketa ona egiteko” eta abar. Gai asko daude lantzeko”. Gaiak asko dira eta ohiko aldizkari pedagogikoetan lantzen ez direnak.

Aldizkaria bazkide batzuen borondatezko lanaren ondorioz argitaratzen da. Bazkideen artean banatzen da. Hauetako gehienak ikuskariak eta zuzendariak dira, administrazio eta gestio munduan lanean dabilen jendea, alegia. Guztira 70 inguru dira, bai ikastetxe publikoetakoak eta bai pribatuetoakoak ere.

Aldizkariak baditu bere baliokideak

Madrilen eta Europan, Forum elkarteak dituen bezalaxe. Denen artean jardunaldiak egiteko elkartzen dira gainera. Urtean bitan, adibidez, lurralde desberdinak bisitatzen dituzte hango hezkuntza sistema, antolaketa eta abar ikusiz eta gai desberdinen inguruko mahainguruak eginez. Aurten Noruegan izan dira. “Horrekin batera elkarketa bilateralak ere egiten dira eta baita estatu mailakoak ere, beti ere esperientziak elkartrukatzeko”.

Gurasoak; etxean baina hezkuntzaren partaide

Haurrak hezitzea irakasle eta gurasoen zeregina da. Askotan hainbat gauza eskolan landu behar direla uste izaten dugu, irakasleen lana dela hori. Baina ez da egia. Gurasook ere zeresan handia dugu eta guztion artean gure seme-alabei emango diegun heziketa osatuagoa eta orekatuagoa izango da. Horregatik, gurasooi ere komeni zaigu ikastetxean aurrera eramaten diren ekintza ezberdinak ezagutzea: zentroko hezkuntza proiektua, ikasgaiak, ikasmaterialak, berrikuntzak eta abar.

Baina nola lortu informazio hori? Bada, aldizkariaren bidez. Gurasoentzat argitaratzen diren aldizkariak ere badaude, bai.

Ikastola

Aldizkari hau 1991. urtean sortu zen Ikastolen Elkartearen eskutik. Harrezkero urtean hamar ale kaleratzen dira, uztaila eta abuztuan oporrak hartzen dituelarik. “Ikastolen mugimendua handia izanik gure arteko boletin bat falta zitzaigula konturatu ginen” dio Zuriñe Mendizabal Ikastola aldizkariaren koordinatzaileak. “Gure arteko albisteak ezagutarazteko medio bat behar genuela ikusten genuen”. Askotan prentsan leku gutxi izaten dutelako, edota prentsan agertzen ez direnak ezagutzeak ere garrantzia duelako erabaki zuten aldizkaria sortzea.

Ikasleak, irakasleak eta gurasoak, hiru ziren hartzaile posibleak izan zitezkeenak, eta Zuriñek adierazi digunez “oso argi geneukan gurasoentzat izan behar



“Gure arteko albisteak ezagutarazteko medio bat behar genuela ikusten genuen”

zuela. Azkenean helduen munduarentzat egitea erabaki genuen, hots, guraso eta irakasleentzat”. Aldizkariak 24 orrialde ditu eta helduen mundura mugatzen dira batik bat. “Badakigu haurrentzako ezer gutxi duela, baina orri kopurua mugatua izanik, ezin da

denentzako modukoa egin. Horregatik zuzentzen gara helduengana batez ere”.

41.000 ale ateratzen dira eta ikasle bakoitzari banatzen zaio etxera eraman dezan. Familia bakoitzak ale bat hartzen du horrela.

Aldizkariaren edukia ikastolen mugimenduari eta gaurkotasunari loturik dagoela esan daiteke. Alde batetik, ikastolen mugimenduak sortzen edo antolatzen dituen festa, jaialdi, kongresu, jardunaldi, ekitaldi, batzar eta abarren berri ematen da. Bestetik, gaurkotasuna duten gaiak lantzen dira. Baina Zuriñek azaldu digun bezala “gure helburua ez da izaten azterketa sakona egitea, gaia mahai gainean jartzea baizik aukera desberdinen berri emanez”. Ikastoletan egiten diren esperientzien berri ere ematen du aldizkariak. Batzutan aldizkariaren egileak dira ikastoletara joan eta esperientziak bilatuz ibiltzen direnak, eta bestetan ikastoletatik bertatik deitzen dute daukaten gaia planteatuz. “Gehienetan azken hau gertatzen da, ikastolek beraiek hartzen dute inizatiba eta hori oso garrantzitsua da”.

Erantzuna badagoenaren seinale da hori, aldizkaria erabiltzen dutela eta erabilgarria dela uste dutela, alegia. Izan ere, hasieran bi kazetarik eta koordinatzaileak ibili behar bazuten ere jendearen atzetik, orain alderantzizkoa gertatzen da. Zuriñek dioen bezala hori da aldizkariak jaso duen erantzuna neurtzeko termometrorik egokiena.

Ibiltzen

Bizkaiko Gurasoen Elkarte orain dela sei urte hasi zen Ibiltzen aldizkaria kaleratzen eta harrezkero urtean lau zenbaki argitaratzen dituzte. Hasieran Ertainetako Guraso Elkarte hasi zen, baina ondoren, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako elkartearekin batu ziren eta ordutik hona guztien artean eta guztientzako egiten dute aldizkaria.

“Hasieran Ertainetako gurasoengana heltzeko zailtasunak handiagoak zirela ikusi genuen” dio Ana Izagirre Bizkaiko Guraso Elkarteko kideak. “Badirudi seme-alabak handitzen diren heinean ez garela hainbeste hurbiltzen ikastetxera.

Eskutitzen bidez bidaltzen genuen informazioa eta azkenean eskutitzak bidali eta bidali ibili beharrean aldizkaria ateratzea pentsatu genuen”. Horrela ikastetxeko informazioa bertan biltzen hasi ziren, hasieran Ertainetan eta ondoren maila guztietan, Haur Hezkuntzatik unibertsitatea hasi arte.

Esparrua zabaldu den bezalaxe zabal-



“Hartzaileak batez ere gurasoak dira, baina ikasle eta irakasleei zuzendutako atalak ere badaude”

du dira gaiak ere. Guztientzat interesgarriak izan daitezkeen gaiak jorratzen dituzte, eta horrekin batera maila bakoitzari dagokion atal zehatza ere badu aldizkariak. “Beti ez dira modu berean agertzen etapa guztiak, momentua eta gertakizunen arabera baizik. Baina hala ere erreferentzia beti egiten zaie”. Anak aurreratu digunez berrikuntza bat gehituko dute hemendik aurrera. Bizkaia 12 zirkunskripzioetan banaturik dago eta zenbaki bakoitzean pare bat hartu eta bertako informazio zehatza ematen hasiko dira. “Urte eta erdian denak agertuko lirake eta horrela zonalde bakoitzari dagokion protagonismoa emango diogu.” Berrikuntza honen asmoa zirkunskripzio bakoitzaren errealitatea besteei ezagutaraztea da. “Gainera mapak egiterakoan, heziketa zikloak eskaintzerakoan eta abar erreferentzia orokorra eduki behar dugu, ez gure herrikoa soilik. Horretarako balioko du berrikuntza honek”.

Guraso Elkarte sei gurasoz osatutako batzorde bat arduratzen da aldizkaria egiteaz. Hauei kazetari batek eta kazetaritza ikasle batek laguntzen diete. Normalean BIGEko Batzordeak erabakitzen du zein izango den gai nagusia, beti ere gaurkotasuna duten gaiak landuz. Ondorengo lana guraso batzorde horrek egiten du. “Horrez gain, ikastetxeetatik ere bidaltzen dizkigute idatziak eta ikasleek ere badute beren txokoa”.

Azken berrien eta Administrazioarekiko harreman eta akordioen berri luzatzen da aldizkariaren orrietan. Ikastetxe ezberdinetako gurasoak zer egiten ari diren jakiteko tresna ere bada Ibiltzen. “Adibidez, ikastetxe batean gurasoek eskolaz-kanpoko ekintzak antolatzen dituztela jakiten dutenean beste ikastetxeko bateko gurasoek, beraiek ere anima daitezke”. Hartzaileak batez ere gurasoak dira, baina ikasle eta irakasleei zuzendutako atalak ere badaude.

Idatzi guztietan hizkuntza erraza erabiltzen saiatzen dira, ulergarria izaten. “Beti daude zailagoak diren gaiak, baina irakurketa errazten saiatzen gara”. Aldizkaria elebiduna da eta euskaraz %30 idatzen dute. “Portzentaia hori



euskaraz ateratzea derrigorrezkoa da. Eta hortik gora ere posible da. Horretan saiatzen gara, euskaraz gero eta gehiago idazten". Ikasleek idazten duten atala, berriz, beti euskaraz egiten da eta hori ere finkatuta daukate.

Ibiltzen aldizkaria eskuratzeko bide ezberdinak daude. Alde batetik, seme-alaben bidez. Hau da, ikastetxeak kuota ordaintzen du eta diru kopuru bat gehiago ordainduz gero, ikasle guztiei banatzen zaie aldizkaria. Bigarren modu bat ikastetxeak kuota ordaindu gabe aldizkari kopuru bat eskatu eta banatzea da. Eta azkenik banakako harpidetza egitea. Banaketa Bizkaian egiten dute, nahiz eta batzutan beste lurraldeetara ere bidali. "Adibidez, Ikas-Bi elkarteari buruz idatzi genuenean Iparraldera bidali genuen" dio Anak. Guztira 25.000 ale argitaratzen dituzte.

Gehiago ere bai

Hauexek dira ikasle, irakasle eta gurasoentzat argitaratzen diren aldizkari nagusienak, baina ez bakarrak, noski. Sindikatuek ere euren aldizkariak kale-ratzen dituzte: LABek Iraultzen eta STEE-EILASEk Eskola Publikoa, CC.OOek CC.OO Irakaskuntza...

Hetelek, Alecop-ek, Ceidak, Euskadiko Irakaskuntza Kooperatiben Federa-

zioak eta beste hainbat elkartek ere barne informazio gisa argitaratzen dituzte aldizkari txiki batzuk. Hauek elkartearen barruko gora-beheren eta partaide diren ikastetxeetako egoeren berri ematen dute.

Eskola barruan ikasleek edota gurasoek egin ohi duten aldizkaria ere leku askotan zabaltzen da. Ikastetxe batzutan ikasleek egiten dituzte orrialde guztiak. Denborapasak, elkarrizketak, erreportaiak, lehiaketak eta antzeko edukiez osatuta egon ohi dira aldizkariok. Irakasleen laguntza izaten dute prozesu osoa aurrera eramateko.

Beste zenbait kasutan gurasoak izaten dira ekimen honen lehen protagonistak. Familia eta eskolaren arteko zubia izatea da aldizkarion helburua. Gurasoen ahotsari leku egiten diote, baina baita irakasle, zuzendaritza eta ikastetxeko gai-nontzeko langileei ere. Guztien arteko hormak botatzeko modua da, azken batean, aldizkaria. Gu ere horretan saiatzen gara HIK HASIn, guztion arteko zubia eraiki eta sendotzen.

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak jasoaz.

Izena..... 1. Deitura.....

2. Deitura..... Helbidea.....

Tfnoa..... Herria.....

Posta Kodea..... Herrialdea.....

Ikastetxea..... Herria.....

Banku edo aurrezki kutxa.....

Sukurtsal helbidea..... Sukurtsal Zkia.....

Kontu korrontea

edo libreta

Entiratea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ Barne)

Hego Euskal Herria
4.000 pezeta

Ipar Euskal Herria
160 libera

hik hasi
Euskal
heziketarako
aldizkaria

Industrialdea, 2. Pabilioia.
20.160

LASARTE-ORIA.
GIPUZKOA

Tel: 943/ 37.15.45.

Fax: 943/ 36.10.48

Txirula jotzeko ikasleen liburua



66 abesti
ezagunak
pentagrama
eta abestien
hitzez osatua.
60 euskal
abesti,
6 abesti
unibertsalak,
112 orrialde.

10 ale baino gehiago
eskatuz gero
beherapen handiak

1.500 pezeta/60 libera

Norbanako harpidedunek 1.000 pezeta/40 libera

Gabon sasoiak "Oles eta oles"

Urte sasoi honetan gabonetako hotzak entzuten hasi ohigara. Negua, etxeko epeltasuna, familia giroa... Une bakoitzak bere berezitasunak izan ohi ditu, eta horiekin loturiko ospakizunak ere bai. Tradizio eta ospakizun horiek berreskuratu asmoz sortu da "Urte Sasoiak" proiektua. Urteko lau sasoi nagusietako altxorak ezagutzera emateko asmoa du, eta lehen pausoa eman du: Pantxoa eta Peioren "Oles ta oles" gabon kanten diskoa.

"Urte Sasoiak" proiektua martxan jarri dutenen helburua Gabon garaia, neguko festak, uda sasoi eta udazken aroan oinarritutako kanta, koplak, dantzak, janzkera eta abar berreskuratu eta ezagutaraztea izan da. Gizakiak eta naturaren arteko harremanak adierazteko mendeetan zehar metatu diren kultur arbaso guztiak (kantuek, dantzak, sinesteak, janzkerak, zeremoniak eta abar) herrian lehenaren eta orainaren parte dira.

Horregatik urteko sasoi nagusiei lotutako ospakizun eta ohituren inguruan, euskal herrietan gorderik dagoen altxorra egokitu eta plazaratzea, eta lekuan lekuko ondarea jasotzea premiazko lana dela iruditu zaie proiektuaren bultzatzaileei.

Gabon garaietara hurbiltzen ari garen honetan lehen eskaintza horretan oinarritu da. "Oles ta oles" izenare-

kin 15 kantaz osatutako diskoa eta zinta kaleratu dira. Pantxoa eta Peio bikoteak Tolosako Laskorain ikastolako haurrekin batera abestu dute grabaketa honetan. Euskal Herriko herri ezberdinetako kantak bildu dituzte; bildutako 50 abestietatik 15 aukeratu zituzten. Denak gabonetako kantak dira, baina gaia eta jatorriak desberdinak dira, Euskal Herriko zazpi probintzietako herrietatik jasotakoak direlarik: Itsasondo, Aramaio, Oiartzun, Urdiain, Gernika, Busturialdea, Mungialdea, Arratia, Otxandio, Elantxobe, Zeberio, Ziburu, Sara eta Lesaka besteak beste. Gaiei dagokienez ere, mota



ezberdinetako abestiak daude: San Nikolas txikiari eskainitako bat, bi marijesia, Gabon egunekoak bost, Eguberrikoak bi, Gabon Zaharretako bi eta Urteberriko hiru.

Proiektuaren mamia

Lan honen helburua gizarteari eredu baliagarriak eta irakaskuntzarako erreferentzia egokiak eskaintzea da. Horregatik, diskoaz gain lan gehiago ere argitaratuko dituzte. Gabon garaiari loturik dagoeneko bi lan prest dituzte: bideo didaktikoa eta liburuxka bat.

Bideoa Jabier Larra-agak burutu du

eta bertan orduerdian gabon garaiko ospakizunak ikus daitezke. Liburuxka, berriz, irakaskuntza arloan erabiltzeko da batez ere. Kantu eta ospakizunei buruzko argibideak bildu dira bertan.

Aurrerantzean eta udaberriari begira eskaintza zabalagoa eskainiko dute. Horretarako erakunde desberdinak inplikatu dira proiektuan eta bakoitzak bere parte eman du eta emango du. Alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek eta Foru Aldundiek xede horretarako programa berezi bat antolatu eta neurri baten finantziatzeko borondatea adierazi dute. Beste aldetik, Euskal Herriko Ikastolen Elkarte eta Labayru Ikastegia programa hori kudeatu eta aurrera eramateko prest azaldu dira. Erakunde biek hartu dute herri kantutegi zaharra aztertu eta ikertzeko ardura eta lan-emitza guztia kaleratzeko editore zeregina Elkar argitaletxearen esku egon da.

Dagoeneko eskuratzeko moduan dagoen konpak diskoan, berriz, Pantxoa eta Peio abeslariak kantatzen dute. Sei urtez elkarrekin abestuz egon gabe ondoren, lan honetarako berriro elkartu dira. Proiektu ona iruditu zitzairen eta ilusio handiz ekin ziotela adierazi dute. Euskal Herriko herrialde ezberdinetako abestiak ezagutzeko aukera izan dute, eta guk ere bai orain beraien bidez.

Zuzeneko emanaldi batzuk ere eskaintzeko asmoa dute, baina kontak izanen dira, 8-10 inguru.

Bikote honek Tolosako Laskorain ikastolako zenbait ikasleren laguntza izan du eta guztien artean osatu dute lana.

Honatx, beraz, gure kulturarekiko eta usadioekiko ezagutza areagotzen lagunduko digun ekarpen berria: Urte Sasoiak.

Gehigarria



hik hasi

haur-jolasen abestiak

Haur txikien inguruan inoiz ez da jolasik eta bertsorik falta izan euskaldunen artean, haurren eta helduen entretenigarri, lehen pausoak ematekoan, txaloak jotzen ikastekoan, haurra bizkarrean hartutakoan, lo egin arazteko, min hartutakoan sendatzeko... Hazten doazen eran hurrek beraiek hartzen dute jolasaren protagonismoa eta gaur egungo kirola, telebista eta bideojokoaz gain badira auzoan edo eskoletako jolastokitan igarotzen dituzten jolasarteak. Hauetan erabiltzen dituzten jolas asko ordea erdarazko eredutan oinarrituak izaten dira euskarazkoak ezagutzen ez dituztelako.

Hemen ez dago aipatu beharrik jolasen bitarteko-lan ezinbestekoa edozein aprendizaiarako. Halaber sozializatorako eta hizkuntzaren ikaste, garatu eta berenagatzeko prozesuan.

Ikusirik bada euskarazko jolas-ereduen urripena abiatu ginen ohikoen ziren jolasen bilduma bat egitera eta hortik zehar jasotakoaz gain beste berri batzuk asmatzera ere.

Beste hainbat jasoketa lanetan antzeman den bezala jolasdoinu gutxi aurkitu ditugu eta horregatik doinu zaharrak moldatu eta berriak sortu ditugu.

Denetara hogeita bi abesti aurkezten dira hamaika jolas-motatarako eta banan-banan hemen azalduko ditugu.

EUSKARAZ JOLASTEN

Euskaraz jolasten
ikas dezagun,
euskaraz jolasten
gau eta egun,
euskaraz jolasten
lagunartean,
euskaraz jolasten
gela eta kalean.



Haurra: Begira! Pirritx eta Porrotx datoz!

Pirritx: Kaixo!

Porrotx: Kutxi-Kutxi, Mari Lutxi!

Haurra: Gurekin jolastu nahi al duzue?

Porrotx: Bai, bai, iupii!

Pirritx: Porrotx, Takolo gure zai dago!

Porrotx: Pixka bat bakarrik, Pirritx.

Pirritx: Beno, eta zertara jolastuko dugu?

Haurra: Soka saltora jolastu nahi duzue?

Pirritx: Bai. Eta nork saltatuko du lehendabizi?

Porrotx eta Haur: Nik, nik, nik...

Haurra: Zergatik ez dugu zozketa egiten?

Porrotx: Nik egingo dut. Jar zaitetze borobilean. Horrela.

(Porrotxek tranpa egiten du)

Harriola-marriola... (musikarik gabe)...zaasst.

Porrotx: Niri tokatu zait!

Pirritx: Tranpa egin duzu, Porrotx!

Haurra: Oraingoan guk egingo dugu.

HARRIOLA-MARRIOLAKA

Harriola-marriola
orratza zorrotza,
zizta gaitza, hari txarra,
tirabira,
zirrin-zarran eta zast!



Zotz edo aukera egiteko, hona hemen "Harriola-marriola". Edozein jolas hasi aurretik zotz egitea onartzen dute hurrek nor lehena hautatu ahal izateko. Taldeko guztiei banan-banan seinale eginez abesten da, azkeneko silabak harrapatzen duena aukeratu izaten delarik.

Pirritx: Kontxo, berriro tokatu zaio Porrotxi!

Porrotx: Ju, ju, ju.

Haurra: Jar zaitetz erdian Porrotx eta kontuz ibili. Bi salto egin ondoren sokak beste bi bira emango ditu zure buruaren gainean.

Pirritx: Ez bazara makurtzen bibotea moztuko dizugu.

Haurra: Badoa... bat, bi eta hiru.

GURE GELAKOENA

Gure gelako, gora;
neska mutilak, gora;
soka saltoan, gora;
gabilitza finak, gora;
horregatikan, gora;
denok goaz, gora;
arras (oso) lirainak, gora;
(e)ta saltarinak, gora;



Soka saltoan aritzeko da "Gure gelakoena". Soka goraka emanez saltariak bakarka ari da saltoka. Saltaria sartzen da, bi salto egin eta abestiak "gora" dioenean saltaria makurtu eta emaleak soka altxatzen du aidean bi bira emanez. Soka jeitsi, eta beste bi salto, makurtu... abestia bukatzen den arte.

Porrotx: Ai, ai, ai! Sudurrean jo didazue eta gorri-gorria jarri zait.

Pirritx: Gorriagoa oraindik! Ji, ji, ji!

Haurra: Orain nori tokatzen zaio salto egitea?

Porrotx: Niri, niri, niri...

Pirritx: Porrotx, beti zu ez, eh! Denok jolastu behar dugu.

Haurra: Badakit! Nik ezagutzen dudana abesti batekin katean saltatuko dugu, bata besteari atzetik.

Porrotx: Beeno, baina kontuz nire sudurrarekin, eh!

Haurra: Porrotx, orain ez duzu makurtu beharrik!

Haurra: Prest. Aurrera!

HAMABOSTARENA

Jolas(tu) gaitezen denok
soka jokoan, soka jokoan,
hautxo euskaldunoi, Ei!
dagokigun eran, dagokigun eran,
euskara hutsean.

Bat eta bi, hiru, lau eta bost,
hamar gehiagorekin
beti dira hamabost.

Goraka eraginez katean saltoka aritzekoa da hau. Jolasean has-terako salto egitea amaitutakoan ikutu beharko duten puntua

adostu behar da. Hura ikutu eta gero ilarara txandaz kanpo aile-gatzen dena sokari eragitea tokatuko zaio.



Porrotx: Jolasteko denbora ba al dugu oraindik, Pirritx?

Pirritx: Ez dakit. Ez daukat ordularirik.

Haurra: Halakoetan "orduen soka saltora" jolasten dugu.

Haurra: Has zaitetz, Irati.

ORDUENA

Soka salto saltoka
erran ieza dazue ordua.
Ez dut ordularirik.
Berdin zait asmatu-rik.
Ordubatak, ordubiak,
hirurak, laurak, bostak,
seiak, zazpiak, zortziak,
bederatziak, hamarrak,
hamaikak, hamabiak.

Soka goraka ematen delarik katean nahiz binaka edo hiru- naka egin daiteke saltoka abestia bukatzen den arte.

Haurra: iupii!

Haurra: Orain gu. Leire, Lierni eta hirurok krabelinarena aukeratu dugu.

Haurra: Baina hori oso zaila da. Hiruron artean egin behar duzue.

Haurra: Zu handitzen zarenean ezkonduko al zara, Porrotx?

Porrotx: Ez dut uste, ez dakit ezkontzea zer den.

Pirritx: Ba ni bai, ezkonduko naiz. Takolorekin, amona Jose- finarekin, Joxepa behiarekin eta, eta, eta...

Porrotx: Pirritx...

Pirritx: ... eta zurekin Porrotx!

Porrotx-Pirritx: Iupii, ju, ju...

KRABELINARENA

Krabelintxo bat dut, Begoñarentzat,
ezkontzen denean, emango diot.
Ezkondu da, eman diot
eta bere senarrak kendu dio.

Oparitxo bat dut, Iñakirentzat,
elkartzen denean, emango diot.
Elkartu da, eman diot
eta bere lagunak kendu dio.

"Krabelinarena" sokari gorra eraginez eta abestia antzestuz



jolasten da. Aldiko hiru saltari behar dira. Lehenengo saltaria abestiarekin batera sartzen da eta krabelina nori eman esaten du orduan. Aipatu bigarren saltaria sartzen da eta krabelina nori eman esaten du. Orduantxe hirugarren saltaria sartu eta lehena irten egiten da abestia errepikatuz berriz hasteko.

Haurra: Ba nik jolas zailagoa ezagutzen dut.

Pirritx: Baaai. Zergatik da zailagoa?

Haurra: Begira. Saltoka ari zaren bitartean zapia lurrera erortzen utzi behar duzulako, gero hartu, patrikan sartu eta berriro kanpora joan.

Pirritx: Ez da erraza, ez. Hala ere, ausartu egingo naiz. Ea, nork utziko dit zapi bat?

Porrotx: Tori nirea, Pirritx. Moook (muki zarata)

Pirritx: Porrotx, zapia mukiz bete duzu!

Haurra: Nolakoa zaren Porrotx!

ZAPIARENA

Txoria goian kantari,
hemen gu soka saltari,
zapia behera,
bat, bi, hiru,
zapia gora,
bat, bi, hiru,
sakelan (patrikan) sartu eta kanpora.



Izenak dioen bezala zapi batekin jolasten da sokari goraka emanez. Abestiak "zapia behera" dienean saltariak zapia lurrera bota behar du. "Zapia gora" dienean berriz zapia lurretik jaso egin behar du. Abestiko "kanpota" hitzarekin irten eta hurrengoa jarraian sartuko da.

Pirritx: Ni nekatuta nago. Oraingoan sokari eragiten jarriko naiz.

Porrotx: Ni ere bai. Oraindik sudurra gorrituta daukat.

Haurra: Ba, errazagoa egingo dugu. Zingili zangalarena abes dezakegu.

Haurra: Oso polita da, ikusiko duzue.

OLATUENA

Sokaz beheraka zingili zangala,
matxinsaltoa bagina bezala,
trebukatzen ez bazara berehala,
hurrengo laguna sar dadila,
bai...orain!



Soka beheraka, olatuen antzera eman behar da. Saltaria bakarrik arituko da saltoka harik eta abestia jarraituz hurrengoa sartzen den arte.

Pirritx: Hara! Orain besoa nekatu zait.

Haurra: Lasai Pirritx, gu ere nekatuta gaude. Soka utziko dugu eta beste zerbaitetara jolastuko dugu.

Pirritx: Zertara adibidez?

Haurra: Utz iezadazu zure eskua.

Pirritx: Nire eskua?

Haurra: Bai. Eta adi egon, hatzekin jolastera goaz.

ARRAULTZAREN BEHATZEN JOKOA

Honek arraultza erosi,
honek gatza bota,
honek frijitu,
honek pixkat dastatu,
honek dena zurrupatu.



Jolas honen Zeraingo bertsiio herrikoia hautatu dugu eta musika asmatu. Banan-banan erakutsi behar dira eskuko hatzak abestiak dion eran, txikitik hasi eta lodienara arte.

Haurra: Hatzekin jolasteko beste era bat ere ezagutzen dut nik.

Porrotx: Zein da?

Haurra: Beno, hatzekin edo eskuan gorde ditzakegun txanpon, kanika, harri...

Pirritx: Porrotx, atera gure goxokiak.

Porrotx: Ezin ditut atera, Pirritx.

Pirritx: Non daude, ba?

Porrotx: Uiuui! Nire sabelean.

Pirritx: Bionak ziren, Porrotx!

Haurra: Berdin da. Bakoitzak kopuru bat esaten du. Ondoren hatzak erakutsi, zenbatzen ditugu eta asmatzen duenak irabazten du.

ASMAZAK/ASMAZAN


Asmazak, asmazan,
Donostiako plazan,
hiru atso omen dira,
hemen zenbat behatz dira?

Haurra: Guk behatza oinetakoei esaten diegu. Entzun, entzun Iurretan nola diogun.

Asmazak, asmazan,
Iurretako plazan,
hiru atso omen dira,
hementxe zenbat hatz dira?

Haurra: Baionan aldiz eri esaten diogu.

Asmazak, asmazan,
Baionako plazan,
hiru atso omen dira,
hemen zenbat eri dira?



Oraingo honetan gipuzkeraz, bizkaieraz eta lapurteraz abesten da. Esku bat atzean ezkututzen da eta nahi diren hainbat hatz aukeratu behar dira. Abesten hasi eta "hementxe zenbat hatz dira?" esatean jokalaria bakoitzak eskuak erakusterakoan azalduko diren hatz kopuru osoaren zenbakia bota behar du. Ondoren eskuak denen aurrera ekarri eta zenbatu egiten dira. Asmatu duen inor balego, huraxe da irabazle.

Pirritx: Zazpi!; ez, bost!; ez, ez, ez hiru!

Porrotx: Horrek ez du balio, Pirritx.

Pirritx: Bai, balio du!

Porrotx: Ez!

Pirritx: Baietz!

Porrotx: Ezetz!

Haurra: Pirritx eta Porrotx, ez haserretu! Jolasten ari gara!

Pirritx-Porrotx: Benoooo...

Haurra: Denok elkarrekin jolasten jarraituko al dugu?

Porrotx: Bai, noski!

Presta ditzatela behatzak gipuzkoarrek, zuek bizkaitarrok hatzak eta iparraldekoak zuen eriak.

Pirritx: Eta mugitu itzazue ipurdiak!

LEHENENGOTXO HORI...

Lehenengotxo hori, punta behatz hori,
beste guztien artean, lodia da hori.

Bigarrentxo hori, punta behatz hori,
beste guztien artean bizkorra da hori.

Hirugarrentxo hori, punta behatz hori,
beste guztien artean luzea da hori.

Laugarrentxo hori, punta behatz hori,
beste guztien artean alperra da hori.

Bosgarrentxo hori, punta behatz hori,
beste guztien artean txikia da hori.

Lalara, lalara...

Hatzak erakusteko abestia hau ere. Eskua itxi eta abestiak dioen hatza erakutsiz hasten da hatz guztiak agerian geratzen diren arte. Jolasa konplika dezakegu bi eskutako hatzak batera edota binaka erakutsi behar izanez gero.

Haur: Parkeko kolunpioan ez dago inor. Goazen!

DILIN-DILINKA

Dilin-dilinka, balantzaka,
dilín-dalán, ziburuan.

Hankak aurrera, zoaz zerura,
hankak atzera (e)ta popa gora.



Zabutan ibiltzeko bi abesti ditugu: "Dilin-dilinka" eta "Zabuan". Bietan txandak abestia bukatu bitartean irauten du eta ondoren hurrengoari ematen zaio aukera.

Porrotx: Bultza indartsuago, Pirritx, ez naiz ia mugitzen!

Pirritx: Pisu handia duzu, Porrotx!

Haurra: Kolunpioan ibiltzeko zuk ere indarra egin behar duzu, eh, Porrotx!

Porrotx: Iiiii!

Haurra: Baina, baina, hortzak estutzea ez da nahikoa.

Porrotx: Iiiii! Banooooaaa...

Maialen: Porrotx, ni noiz?

Porrotx: Maialen, zu oraindik txiekiegia zara zabuan ibiltzeko.

Maialen: Bai, zera!

Haurra: Zabua abestuko dugu. Hamairu entzutean jaitzi eta hurrengoa hasiko da.

Porrotx: Ados! Ah, Maialen, bat, bi, hiru...(azkar).

Pirritx: Itxaron Porrotx! Oraindik ez dago eserita.

Porrotx: Ju, ju, ju!

ZABUAN

Zabu, zibu, ziburu; zibu, zabu, zaburu;
konta itzazu, zibu-zabu,
konta itzazu hamahiru...

Bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi,
bederatzi, hamar, hamaika, hamabi, hamahiru.

Haurra: Gaur, Arantxaren urte-
betetzea da. Goazen ea topatzen
dugun...

Denok: Goazen, goazen...

Haurra: Begira, hor dago!

Pirritx: (Isilka hitz eginez) Atze-
tik hurbilduko gara eta abestu
egingo diogu.



ZORION BERO-BEROA

Zorionak zuri, zer moduz?

Urtebete gehiago duzu Arantxa.

Zorion bero-beroa,
zuri eta zure laguntzat.



Urtebetetzekoak beti abesti berberarekin ospatu ohi ditugu baina hemen doinu berri bat proposatzen dizuegu urteak egiten dituenari zoriontzeko.

Porrotx: Zorionak, Arantxa-txantxa.

Arantxa: Arantxa, Porrotx, **A-ran-txa.**

Porrotx: Hori, hori, Arantxa-plantxa.

Denak: Ja, ja, ja.

Arantxa: Gogoratu zaretenez gaileta bana banatuko dizuet.

Pirritx: Gaileta bana bakarrik!... Berehala bukatuko zaigu!

Haurra: Lasai, Pirritx, gailetarekin jolas bat egingo dugu eta gehiago iraugo dizu.

Porrotx: A bai! Eta nola da hori?


Haurra: Gaileta kopetan jarri eta eskuak erabili gabe ahora eraman behar da.

Pirritx: Hori oso erraza da. Begira ezazue...mmm, ai, ai, ai!

Porrotx: Ju, ju, ju!... Pirritx gailetarik gabe gelditu da.

ZINUKA

Kopeta gainean gaileta bat jarri,
zinu-zinuka ahora ekarri.
Eskuak atzean, ez erabili,
gaileta jaten duenak, hark irabazi.



Gaileta-jolaserako dugu hau. Jolas hone-
tan kopeta gainean jar-
tzen da gaileta, eta aur-
pegiko keinuen bidez
eta eskuakin ikutu gabe
gaileta hori ahoraino
jaitsi arazi behar da
abestiak irauten duen
bitartean. On egin!

Denak: (Txaloak)

Porrotx: Oso ongi,
Aitor.

Haurra: Aulkitara
jolestuko dugu?

Pirritx: Bai, bai, niri
asko gustatzen zait.

Haurra: Baina,

Porrotx, altxa zaitetz aulkitik! Oraindik ez gara abesten hasi eta!

Porrotx: Gaileta bat bakarrik janda indarririk gabe nago.

Pirritx: Hara Porrotx, ez zaitetz alperrontzioa izan.

AULKIENA

Saltoka eta brinkoka korro korroan (bira-biraka),
den denak gabiltza aulkien ondoan.

Lalara, lalara...

Musika pozgarri hau isiltzen bada,
eseri behar duzu aulkitxo batean.

Lalara, lalara...

Guztiok aulkietan eseritzean,
nor geldituko da jokutik kanpora.

Lalara, lalara...



Aulki-jolasean haur askok har dezakete parte. Jokalari baino aulki bat gutxiagoz osatu behar da borobil bat eserlekuak haurrak dauden aldera begira direlarik. Abestia kantatzen hasi eta aulkien inguruan hasten dira bueltaka korrituz ala dantzatzuz harik eta jokoaren "arduradunak" geratzeko zeinua (txaloea, txistu...) egiten duen arte. Orduan jokalariek eserleku batean eseri behar dute eta lekua aurkitzen ez duena kanporatua izaten da. Aulki bat kendu eta lehengo eran jarraitzen da kantatuz eta kanporatuz jokalari bakarra geratu arte.

Haurra: Aupa Izaro, txapeldun!

Maialen: Nik aukeratuko dut hurrengo jolasa. Adibidez, adibidez... ezkutaketan!

Pirritx: Ni ez naiz geratzen.
Porrotx: Ezta ni ere. (Oso azkar).
Haurra: Ni ere ez.
Haurra: Ez larritu. Zozketatzea izango da onena.
Pirritx: Ah bai, nik zozketatuko dut, bestela Porrotxek tranpa egingo digu eta.
Hiru eta hiru... Ku! Ku!
Porrotx: Eñaut, tokatu zaizu.
Eñaut: Bale, hastera noa!
Denak: Goazen, goazen, azkar...

HIRU ETA HIRUKA

Hiru eta hiru sei, hiru bederatzi,
 hamar hemeretzi, bat hogeit,
 bi berrogei, hiru hirurogei,
 lau laurogei, bost ehun... Ku! Ku!



Ezkutaketarako "Hiru eta hiruka" dugu. Zotz egin eta geratzen dena horma edo zuhaitz bati begira jartzen da besoekin begiak estaliz. Beste jokalariek ezkutatu egin behar dute abestia kantatzen duten bitartean eta azkeneko "ku" esatearekin batera gordeta daudenen bila abiatuko da. Norbait ikusiz gero horman jo eta "ku-ku... Mikelengatik" esan behar du. Ikusia den lehena geratzen da hurrengo txandan.

Haurra: Mikelengatik, Asierengatik, Iratirengatik, Porrotxengatik...
Porrotx: Katxi porreta! Aurkitu gaitu. Aulkien jolasean zorabiatu egin naiz eta ezkutatzeko egin dudak korrikak ere, nekatu egin nau.
Haurra: Eta gu ezkutatu beharrean hitzak ezkututzen baditugu?
Pirritx: Hitzak ezkutatu? Nola da hori?
Haurra: "Ikusi-makusi"ra.

IKUSI-MAKUSIKA

Ikusi makusi.
 Zer ikusi?
 Ikusten, ikusten, ikusten... "kro".

Igerkizunetarako "Ikusi-makusi" herrikoia dakargu musika berrituarekin. Abestiaren bukaerarekin batera asmatu behar den hitzaren hasierako silaba eman behar da beste jokalariek hasiera hori duen hitza asma dezaten. Igertzen duenak proposatzen du hitz berria.

Porrotx: Badakit! "Krokodiloa" izango da.
Haurra: Hemen ez dago krokodilorik.

Pirritx: Orduan, "kroketa"!
Haurra: Non ikusten duzu zuk kroketa, Pirritx?
Pirritx: Zure sudurrak kroketa dirudi, ju, ju...
Leire: "Kromoa"!
Haurra: Ongi. Asmatu duzu, Leire. Hasi zu orain.

Ikusi makusi.
 Zer ikusi?
 Ikusten, ikusten, ikusten... "txo".



Haurra: Txorizoa!
Leire: Ez.
Haurra: Txoria!
Leire: Bai. Has zaitez!
Porrotx: Orain bertsolarien erara. Hitz-bukaera emanda, ea nork asmatzen duen!

Ikusi makusi.
 Zer ikusi?
 Ikusten, ikusten, ikusten... "rra".

Zertxo bat aldatu nahi izanez gero hasiera emanaren ordezkari eman daiteke, bertsolarien erara, ea nork igertzen duen.

Pirritx: Sagarra!
Porrotx: Ez!
Haurra: Atxurra!
Porrotx: Ezta pentsatu ere!
Haurra: Kitarra!
Porrotx: Hara! Oso ederki!

Haurra: Ea asmatzen duzuen zein den hurrengo animalia. Buruan bi antena dauzka...
Porrotx: Saturnino!
Haurra: Ez! Sorbaldan motxila bat du eta...
Pirritx: Badakit. Aitona, zakua sagarrez beteta duela.
Haurra: Ez. Eta arrastaka ibiltzen da.
Porrotx: Arrastaka? Takolo mendira joaten denean...
Haurra: Ezetz, ba! Ez duzue asmatzen. Barraskiloaren jokua da.

BARRASKILOARENA

Barraskiloaren jokora
 jolasteko asmatan,
 marrartzuz hori lurrean
 hasten gara saltoka.
 Salto eta salto matxinsalto,
 marrak zapaldu gabe,
 bestela zuen izenak
 idatziko dituzue.



Txingoka aritzeko dugu "Barraskiloarena". Klarionaz edo makilaz barraskilo baten itxurako irudia margotu lurrean eta etxetxoetan zatitu behar da. Jokalariak, txingoka, harria pasara zi behar du etxetxoetatik barraskiloaren erdiraino iritsi arte. Etxetxoaren marraren bat ikutuz gero bere izena idatzi eta kanpora joan beharko du.

Porrotx: Ikus dezagun nortzuen izenak dauden idatzita... Oihan, Izar, Iker, Olaia...

Pirritx: Porrotx, zuk ere marra zapaldu duzu, eh!

Porrotx: Nire izena ez dago barraskiloan.

Pirritx: Porrooooootx.....

Haurra: Korroan jolastuko dugu?

Porrotx: Ongi! Erakutsi guri.

Haurra: Nik egingo dut dona-dona.

KIKURI-BIKURIKA

Harrapaketan, izkutaketan, kiriketan,
kikuri bikuri lakirikon,
zinko binko larikon,
tokatzen zaiolari, hor konpon!
Kikuri-bikuri lakirikon,
zinko binko larikon.

Haurra: Garazi, hi agintari!

Garazi: Borobilean denok eskutik emanda.

Porrotx: Hartu, tori nirea.

Garazi: Nik esandakoa kanpora begira jarriko da.

INGURUMIKA

Bira-bira eta kate,
zozo-zozoa balkate,
Ibarrangeluan alkate
(e)ta Bilbon erregidore.
Gure auzoko Izaro (Xabier, Garazi) ere,
atzeratzen jira-bira liteke.



"Ingurumika" rekin borobilean jarri zutik eskutik helduta eta bueltaka hasi abestia kantatuz. Abestiak atzera jiratzeko esaten duenean jokalaria baten izena aipatu eta honek atzera biratu behar du korrolari guztiak era berean atzera begira jarri arte. Denak kanpokaldera jiratu direnaren, berriz barrukaldera biratu behar da hasierako puntura iristeko.

Haurra: Iluntzen ari du. Laister, etxerako ordua!

Pirritx: Porrotx, Takolo gure zai dago.

Porrotx: Nola pasa den denbora...!

Haurra: Azken jolasa egingo dugu?

Porrotx: Pirritx, azkena!

Pirritx: Beno, baina azkena, eh!

ESKUTIK HELDUTA

Eskutik helduta gaude,
borobil bat eginez,
arras pozik gabiltza,
itzul anitz emanez.

Eskuina, ezkerre, urrats bat aintzinka;
eskuina, ezkerre, urrats bat gibelka;
eskuina, ezkerre, urrats bat aintzinka;
eskuina, ezkerre, ipurdiz lurrera.

Jarri korroan eta abestianematen diren aginduak bete behar dira, batean eskuinera, bestean ezkerre, aintzinka (aurrera), gibelka (atzera), azkenik ipurdi gainean eroriz.



Denak: Ja, ja, ja....

Porrotx: Zein ongi hemen, lurrean jiraka.

Pirritx: Iufi!

Takolo: Baina, baina, zer zabilzate lurrean basurdeak bezala? Arratsalde osoan zuen bila ibili naiz.

Porrotx: Takolo, oso jolas politak erakutsi dizkigute.

Pirritx: Zuri ere erakutsiko dizkizugu.

Takolo: Jolasak...?

Haurra: Bai, entzun, entzun.

Euskaraz jolasten
ikas dezagun,
euskaraz jolasten
gau eta egun,
euskaraz jolasten
lagunartean,
euskaraz jolasten
gela eta kalean.

Takolo: Bai, oso polita da. Atsegin zait.

Jolas guzti hauek haurrek sor ditzaketen aldaketen arabera molda daitezke, bai era errazagoan edo zailagoan.

Espero dugu jolas-abestien bilduma hau baliagarria gertatzea eta oraindik geratzen diren hainbat eta hainbat jolasen inguruan beste lan batzuk egin ahal izatea.

elkarriketa

HUMANITATE DEKRETUAREN INGURUAN


“
Euskal irakaskuntza Humanitateen dekretu proposamenaren aurrean
”



Patxi EZKIAGA



Juan Mari ELORZA



Jose Luis LARREA

HUMANITATEEN INGURUAN



“**Patxi
-FERE:**
*Irakasle batek
euskaldun
izatearen
pertenentzia
zentzua garbi
badauka, etor
daitezke etor
daitezkeen
legeak. Azken
batean klasea
irakasleak
egiten du*”

Azken aldian heziketa eta irakaskuntza munduan ematen ari diren erabaki larriak direla eta, ez da eskuak gurutzaturik gelditzeko momentua. Euskal Herriko ikastetxe eta erakunde guztiei eragiten dien egoera da eta denon artean hausnartu eta aurre egitekoa.

Asmo horrekin, azaroaren 18an mahainguru bat antolatu genuen taldeok gonbidatuz: ELA, EILAS eta LAB sindikatuak, FERE, Guraso Elkarte, Ikastolen Elkarte eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.

ELA sindikatuak ezin zuela agertu abisatu zuen eta idatzi bat bidali zuen bere iritzia azalduz. Guraso Elkarteak baiezkoa eman zuen baina ez zen azaldu. Ikastolen Elkarteak gai honen inguruan esan beharrekoak esanda eta eztabaidatuta zeudela azaldu zigun eta ez zuela mahainguruan parte hartzeko asmorik. Hezkuntza Sailak, berriz, ez zion erantzun ere egin gure proposamenari. Beraz, EILAS, LAB eta FERE izan ziren mahainguruan parte hartu zutenak, Jose Luis Larrea, Juan Mari Elorza eta Patxi Ezkiaga, hurrenez hurren.

Gauza interesgarriak komentatu ziren bertan eta guztiok ezagutzeko modukoak iruditu zaizkigu. Orriok horretarako baliatuko ditugu, beraz.

Mahaingurua hiru galdera edo ardatzen ildotik garatu zen:

- 1.- “Humanitateak” dekretu egitasmoari buruzko iritziak.
- 2.- Irakaskuntzak pairatzen duen egungo egoeraren azalpena erakunde bakoitzaren ikuspegi-tik.
- 3.- Egoeraren aurrean jokabide posibleak aurkeztu.

Patxi Ezkiaga-FERE: Hasieran nik uste dut dekretuak berak zer dioen adierazi beharko genukeela eta nire

ustez, hasieran egiten duen baieztapena da garrantzizkoena. Hasiera-hasieratik dekretu hau Historia eta Geografia aldetik garatu nahi dutela dio alde batetik, eta bestetik gaztelaniaren aldetik, hizkuntzaren aldetik. Baina garbi-garbi adierazten dute horren guztiaren helburua norberaren kultur identitatea eraikitzea dela. Horretan Historiak nola edo hala iragan historikoa oinarri duelarik betetzen du funtzio hori eta Geografiak espazioaren eraiketa eginez.

Baina kuriosoki, hori aipatzen duen momentuan hori egiteko dekretuak ikuspegi orokor eta integratzaileak eskaini nahi dituela adierazten du. Eta ikuspegi orokor eta integratzaile horiek eskaini ahal izateko momentuan, bitxia da jarraitzen duen haria: Unibertsoa, Mendebaldea, Europar Batasuna, Espainia, eta gero nazionalitateak, lurraldea, probintzia, herria. Orain arte erabili izan ditugun proiektu pedagogikoen guztiz bestelakoa da. Hori planteatu ondoren ez du engainatzen.

Nik hori positiboa ikusten dut, ez engainatzea, alegia. Hasieratik esaten du garbi, garbi, garbi Espainiako historiaren berezitasunak Europako testuinguruarekin lotzea dela helburua historia unibertsalaren hari nagusietan oinarrituta. Eta berriro dio Espainiako jardura historikoaren izaera unitarioa duela gai, izaera bateratu hori, beronen hizkuntza eta kultur aniztasunarengatik. Hori oso gaizki ikusten dut programazioari dagokionez, etenaren historia delako, urraduraren historia. Ukatu egiten digu hasiera-hasieratik herri bezala existitu ahal izatea, zeren eta behin eta berriro erreferentzia gisa Espainia bakarrik hartzen baitu. Programazioan guri buruzko erreferentzia bakarra dago: Aro Garaikideko “La España Liberal” delakoan Iberiar penintsulako nazionalismoak landuko dituela dio epigrafe nimi-o batean. Eta ez dago besterik.

Nire ustetan, horretan jardun dugunok badakigu zein garrantzitsua izan daitezkeen eta den herri honetan mugak bertan behera botatzea prozesu inte-

gratzaile bat eraman nahi badugu. Lehen Pirinioak muga baldin baziren, dekretu honekin Pirinioak ezezik Himalaya handi bat jarri digute, zeren eta automatikoki ez baitago Ipar Euskal Herririk eta ezta Nafarroarik ere. Badirudi kontrarreforma garaiko halako manikeismo basati batetara, estatu batetara bueltatu gaituztela berriro.

Erreforma garaia da eta badirudi, testua irakurriz, modu lehiatsuan eginda dagoela, hesiak ahalik eta handienak egiteko asmotan.

Juan Mari Elorza-LAB: Gauza berriak aipatzearen, eta ados egonda egindako hainbat balorazioekin, interesgarria iruditzen zaigu proiektu berri hau zein kontestutan eman den aztertzea. Hau da, zein da gaurko egoera? Dirudenez estatuak ez zeukan aukerarik eduki minimoak finkatzeko. Denak autonomien eskuetan geratzen ziren.

Abiapuntu bezala hori hartu behar da, gaur egungo legedia edo LOGSEk markatzen duen ildoan nondik nora doan. Garbi esan behar da gaur egungo egoeran Estatuako Ministeritzak gehiengo daukala proiektu honetan eduki minimoak ezartzeko. Oker ez banago, %55a estatuaren eskuetan geratzen da eta autonomia erakundeetan %45a. Honek esan nahi du gaur egun estatuak nahiko ahalmen duela berari interesatzen zaizkion edukiak jartzeko.

Gaur egungo irakaskuntza mailan Estatu Espainiarreko errealitatea eta kultura present daude jadanik maila handi batean, zoritxarrez edo zorionez, bai Kataluniako eta baita Euskal Herriko irakaskuntzan. Orduan, dekretu berri honek ez daukala inolako justifikaziorik esan nahi du. Bai irakaskuntza eta bai gizarte mailan Estatu Espainiarrean dauden sektore atzerakoiak nahie erantzuten die soilik.

Zentzu horretan hartzen dugu eraso bezala, autonomiei eta autonomia estatutuei egiten zaien eraso. Nik uste, horrelako gertakizunek arrazoiak ematen digutela estatuaren bideak


nahiko agortuta daudela eta marko politiko berri baten alde borrokatzen hasteko garaia dela esaten dugunoi.

Horrez gain, ikastetxeentzat suposatzen duen eraso ere aipatu nahi genuke. Ikastetxeek, erreformaren arabera, autonomia zirrikitu batzuk badituzte curriculum batzuk finkatzeko, eta dekretu honen bitartez hori ezinezkoa izango da.

Bukatzeko, bai Baskongadetan eta Nafarroako administrazioaren aldetik egon diren erantzunak ez zaizkigula oso bidezkoak iruditu azpimarratu nahiko nuke. Apalak eta eskasak izan dira. Nafarroakoak ez du izenik, goitik behera onartu dute dekretua eta gainera defendatu egiten dute. Oso nekez esplika daiteke hori. Baina Baskongadetakoa ere nahiko apala da eta oso arriskutsua hori hartu eta negoziazio batean sartzea.

Jose Luis Larrea-EILAS: Ados nago orain arte esandakoarekin. Beste puntu bat gehitzeagatik zera esango nuke: guk dekretuaren hausnarketa egiterakoan aztertzen dugun lehendabiziko gauza dekretuaren ahulezia eta faltsukeria dira. Ahulezia zergatik? Diagnostikoa egiterakoan Aguirre, kargua eskuratu zuenetik, adierazpenak egin eta egin egon dela ikusten dugu: Humanitateen ahulezia, Humanitateen azterketaren beharra eta abar. Horrekin giroa prestatzen egon da. Zenbait adituen adierazpenak eta egunkarietako artikuluak azaldu dira Humanitateen egoera larria zela esanez bai Espanian eta baita Europako zenbait nazioetan.

Beste gauza bat ere esango nuke: diagnostikoaren injustizia. Aldaketa sakon hauek planteatzerakoan, eta sakonak dira pedagogia, epistemologia eta didaktika aldetik eta zuek aipatu dituzuen arrazoiaren aldetik, orain arte LOGSE onartu baino lehenago MRP edo Berrikuntza Pedagogikoaren Mugimenduetan aritu diren irakasle, guraso eta jende askok izugarritzko ahalegina egin zuen Didaktika hau berritzeko. Hori dena lurrean geratu



da proiektu berri honekin.

Beste puntu bat zera da: guztiz demagogikoa iruditzen zaigula. Hezkuntza departamentuak, PP alderdia atzerakoa eta kontserbadorea denez, LOGSEk eta Erreformak planteatzen zuena ez zuen inoiz onartu, inoiz ere ez. Orduan, izan duen lehendabiziko aukera aprobetxatu nahi du. Ez da ausartzen dekretuaren legea bertan behera uzten eta Humanitateen bidez dekretu batzuk eginez hasi da. Gero Batxilergoarena etorriko da eta gero Lehen Hezkuntzakoa. Horregatik diogu guztiz demagogikoa dela, ez daki-gulako Humanitatea interesatzen zaien edo ez, baina argi dagoelako beraien ideia politikoak ezartzeko erabiltzen ari direla. Argi eta garbi ikusten dugu.

Mass-media, politikari eta erakunde politikoaren artean gaiaren trataera nolakoa izan den ere aipatzekoa da. Gure ustez tratamendua guztiz kaltegarria izan da. Komunikabideetan manikeo gisa tratatu dute. Jendeak jaso duen ideia hau izan da: Humanitateak desastre hutsa direla eta erreformak ezartzen zituen ereduak guztiz desegokiak zirela.

Dekretu honen helburua giroa prestatzea izan da eta fundamenturik gabe egin dute. Diagnostikoaren faltsukeria eta ahulezia lekuko dira. Ez dago inolako ikerketa edo hausnarketarik

HUMANITATEEN INGURUAN



“
*Jose Luis
-EILAS: Gure
lehendabiziko
iritzia edo
inpresioa
dekretuaren
diagnostikoa
ahula, faltsua,
demagogikoa
eta injustua
dela da,
oinarririk
gabekoa*”

DBHk sortzen dituen emaitzak eba-
luatuz. Maneiatu diren inkestak edo
azterketak auskalo zeintzuk izan diren,
mahai gainean ez baitira jarri. Nork
egin ditu inkesta horiek? Auskalo.
Non? Auskalo. Eta egitekotan ere,
DBHko ikasleei ez zaie egin, oraindik
ez dagoelako 4. DBHko mailarik.

Beste akats bat irakasleen bazterketa
izan da. Dekretuaren aurrepuntuetan
irakasleriaren zenbait sektoreen iri-
tzia aldagakaren aldekoa dela aipatzen
da, baina zeintzu dira irakasle horiek?

Beraz, gure lehendabiziko iritzia edo
inpresioa dekretuaren diagnostikoa
ahula, faltsua, demagogikoa eta injus-
tua dela da, oinarririk gabekoa.

Patxi Ezkiaga-FERE: Horretan
aurrera egin behar baldin badugu, hori
aldatu egin behar baldin bada eta hori
onartuko bagenu, zergatik hartu behar
ditugu oinarriztat behin eta berriro
espainiar erreferentziak? Zergatik ez
hartu euskal erreferentziak?

Zerk egiten dio Gobernuari dekretu
hori zilegi egitea? Konturatu dira hori
justifika ezina edo justifikatzeko zaila
dela? Beraiek LOGSEn apoiatzen dire-
la diote. LOGSEk zera dio: “Errefor-
mak badu berarengan geroko egoki-
pen eta garapen posibleak egiteko
adina malgutasun”. Eta horretan oina-
rritu direla diote, zeren, LOGSEren
helburuen artean hiru daudela zioten:
adinen ohiturak eta ikaste-teknikak
eskuratzea, ezagupen zientifiko-tekniko,
humanistiko, historiko eta esteti-
koa jasotzea eta Espainiako hizkuntza
eta kultur aniztasunarekiko errespe-
tua, gero inondik azaltzen ez dena,
inondik ere ez.

Zerbaitek laguntzen baldin badigu
benetan euskal nortasuna lantzen,
gure neska-mutilei euskalduntasuna
zertan datzan erakutsi ahal izatea da.
Arlo hauek dira hain zuzen gehien
laguntzen digutenak, Geografia, His-
toria eta Humanitateak. Hori gure
eskuetatik at gelditzen baldin bada,
eskumotz eta hankamotz gelditzen
gara, zeharo lotuta. Baina azken xedea
espainiar guztientzat amankomuneko

formazioa bermatzea eta ondoren
emango dien titulutasuna badira, ez
dago zer esanik.

Honek benetan kutsu txarra du,
kiratsa. Honen atzetik zenbait esta-
mentu atzerakoi eta aspaldiko iragana-
ri zeharo hestu loturikoak ikusten
dira, bueltan datozenak berriro ere,
burdina bere arregora eraman nahian
dabilen jendea.

**Ikastetxeen eskuetan ez dela
ezer geratzen esan da. Zergatik
esaten da hori?**

Juan Mari Elorza-LAB: Gutxienez
teorian LOGSEk bazeukan planteam-
endu metodologiko bat eta beste
gauza batzuren artean curriculumak,
edukiak, ez direla guztiz finkatuta
joan behar hasieratik zioen, baizik eta
lerro nagusiak. Ondoren zentro bakoit-
tzean lan bat egin behar da irakasleen
aldetik hori osatzeko. Azken finean
curriculum hori ikastetxean bertan
osatzen da taldeko irakasleen artean.
LOGSEk bazuen planteamendu hori
bederen.

Baina erreforma honekin ezinezkoa
bihurtzen da, eta LOGSEren filosofia-
ren eraso bihurtzen da. Beraz, bai eus-
kal irakaskuntza defendatzen dugu-
nok, hau da, Euskal Herria herri bat
delako erreferentzia bezala hartu behar
dela esaten dugunok, eta besterik gabe
LOGSE defendatzen dutenak derrigo-
rrez egon behar dute egitasmo honen
aurka.

Jose Luis Larrea-EILAS: Curricu-
lumaren malgutasuna desagertu egi-
ten da. Hori autonomiek zuten por-
tzentzia horretan ikusten da eta
ikastetxeek proiekturako curriculumak
egokitu ahal izateko zuten aukeretan.
Non geratzen da irakasleriaren papera?
Penagarria da orain arte kritikatu
duguna, guztiz transmisiboa izateare-
na, bere horretan geratzen dela. Irakas-
le sortzailea edo profesionala beste era
batera ikusi nahi genuen eta goitik
behera deuseztatzen da.

Irakasle eta ikasleak horrelako gai
zerrenda batekin aurkitzen badira, ez

zaie ezertarako denborarik ez aukerarik gelditzen, memoria edo oroitzapena lantzeko soilik. Gainera, oroitzapena modu txarrez lantzen da, gero errepikatzen, telebistan egiten diren lehiaketa horietan parte hartzeko. Ez da sortzen ikasle sortzailea, lan-ikerketak egiteko eta pentsatzen ikasteko modukoa.

Patxi Ezkiaga-FERE: Guztiz ados nago XIX. mendeko epistemologiaren aurrean gaudela diozunean. Zerrenda ikusirik, helburuak aipatzen ditu eta hor dago gakoa. XIX. mendean indartu eta legeztatu egiten da modernitatearen arlo sozial organizatzailea, arrazional-organizatzailea esango nuke nik.

Hau gertatzen den momentuan bertan nolabait mugimendu erromantikoaren bitartez eta abar, espazio mitiko bat sortzen da. Horrek hastapenei eutsi nahiko lieke, arrazionaltasun erataileetatik aparte gelditzen diren beste zenbait gauzei, sentimenduen munduei, pertsona sortzaileari, irakasle sortzaileari, ikasle sortzaileari eta abar.

Euskal Herrian prozesu hura eman zen momentuan nazionalismoaren sorrerarekin lotu zen estu-estu, espazio mitikoa eta nazionalismoaren sorrera lotu egiten dira. Eta lege hau zerbaiten kontra baldin badago, horren kontra dago. Modernitateak beti polo positiboa izan du eta nazionalismoak polo negatiboa, polo kritikagarria. Orain berriro horretara bueltatzen gara kontrakorik handienak hori sortu zen momentuan bertan izan zituela ahaztuz.

Azken batean merkatuko beste liberalismo bat izango litzateke. Horretan datza, nire ustez, irakasleari egindako benetako eraso, nortasuna moztu egiten da, izan dezakeen sormen ahalbidea hari estu loturik dagoen espazio mitikoarekin murriztu egiten da, zantzu. Azken finean, dekretu zeharo politikoa da eta nazionalismoaren kontra eginiko zerbait da, horren inguruan mugitzen garen irakaslearen aurka zerbait, oso nabarmen gainera.

Juan Mari Elorza-LAB: Franko hil eta ondorengo transizioko lehen urteetan berrikuntza giroa zabaldu zen irakasleentzat, irakaskuntza munduaren barruan. Horren fruitua LOGSE legea izan zen. Baina bi gauza ezberdin dira. Hasiera batean gizarte mailan irakaskuntza aldatu beharra zegoenaren pentsamendua zabaldu zen, metodologia hark ez zuela balio, berrikuntza bat planteatu behar zela. 80. hamarkadaren hasieran halako adostasun bat egon zen.

Baina hurrengo hamarkadan LOGSE atera arte faktore batzuk ematen dira: PSOE alderdi agintariaren eskuintzaren eta Erreformaren bidearen teknokratizazioa. LOGSEren legeak arautzen duenarekin berrikuntza pedagogikoa bigarren mailan gelditzen da. Oraindik hizkera progresista eta metodologiaren aldaketaren beharra aipatzen dira, baina helburu nagusiak aldatu egin dira. Erreforma teknokratikoa bihurtzen da eta beraz, hain beharrezkoa zen berrikuntza pedagogikoa ahaztu egiten da. Gaur egun egoera horretan jarraitzen dugula esango nuke.

Aurrera begira, zer jarrera hartu beharko litzateke?


Patxi Ezkiaga-FERE: Geroari begiratuz hiru gauza aipatuko nituzke, guztiz garrantzitsuak nire ustez.

1- Eskola bezala eta irakaskuntza

bezala salatu egin behar dugula dekretu honek azpian daraman filosofia, erakundeek identitate artekaritzarako gaitasuna dute. Hau dago filosofiaren atzean. Nik uste demostratuta dagoela hori galduta dagoela. Erakundeek ez dute identitate artekaritzarako gaitasunik. Hau da, erakunde bat ez da talde edo gizabanako baten nortasun parametroak ezartzeko gauza eta estatua are eta gutxiago. Badirudi honen azpian horrelako borondate bat dagoela.

2- Nik uste dut gure neska-mutil eta irakasleengan, baina batez ere gure neska-mutilengan, pertenezia zentzu hau areagotu egin behar dugula. Noski, intzularitate batean erori gabe, baina pertenezia zentzuan, eta lege berri honekin hori hankaz gora doa. Nik uste dut gure eskuetan daukagun zereginik garrantzitsuena euskaldun izateak zer suposatzen duen behin eta berriro gogoratzea, hausnartzea eta gure artean behintzat ahalik eta adostasun handienera iristea da kanpotik datorkigun uhin horrek irents ez gaitzan.


3- Garbi dago kanpotik portaera eredu pila bat datozkigula, zibilizazio eredu mordoak datorkigula eta guk euskaldun bezala iraun nahi baldin badugu, gu zer garen eta kanpotik datorkigun guzti horri zer eskain diezaiogun definitu beharrean gaude. Azken batean mestizaia batean bizitzera behartuta gaude eta hortik kanpo ezingo dugu



HUMANITATEEN INGURUAN



“*Juan
Mari-LAB:
Irakaskuntza
edukietan
euskal
ikuspegia
dugun
erakundeon
artean itun bat
egitea
proposatuko
genuke
elkarrekin lan
egiteko*”



bizi. Asuntua da mestizaia horretan guk ehuneko zenbat gorde dezakegun euskaldun bezala.

Horrek esan nahi du dekretu hau irakurriz eta hau aurrera eramaten baldin bada, berriro ere aitzinean bezala gettora itzul arazi nahi gaituztela, intsulari izatera, talde txikien disidentziara.

Nik uste dut hori ez dela irtenbidea. Besteekiko harremanetan bizi behar dugu eta estatuarekiko harremanetan ere bai nahiz eta estatu zapaltzailea izan. Baina harreman mundu hori zehaztu egin behar da, definitu. Dekretu honek aurrera jotzen baldin badu eta dagoen bezala aplikatzen baldin bada, segregatuen erreduktionismo batetara mugatuko gaitu.

Juan Mari Elorza-LAB: Nik faktore batzuk aipatuko nituzke.

1- Euskal Herrian zatiketa politikoa irakaskuntza mailan ere min handia egiten digu eta ondorio oso larriak ditu. Honek erakunde guztioi erreflexiona arazi egin beharko liguke eta zatiketa hori nola gaindi dezakegun planteatu bakoitzak.

2- Euskal gizarteak oraindik ere euskal irakaskuntzaren aldeko apostua egiten jarraitzen du eta hori urtetik urtera matrikulazio datuetan nabaritzen da.

Borondate garbi honen aurrean ins-

titutzioek ez dutela erantzun garbia ematen pentsatzen dugu, eta hori Nafarroan eta Iparraldean oso garbi ikusten da. Baskongadetan ere ematen ari da, gero eta adibide gehiago daude. Bere politika zalantzan jartzekoa da.

3- Bestalde, estatuaren aldetik datarren eraso gero eta gogorragoa da, kontrarreforma baten hasieran gaude eta administrazioa ez dugu ez prest eta ez aurre egiteko nahiko borondaterekin ikusten. Sinpleki esateko, ezta autonomia estatutuak irakaskuntza mailan errekonozitzen dituen konpetentziak erabiltzeko ere.

4- Azkenik, irakaskuntza mailan dauden sektore ezberdinak, guraso elkarteak, sindikatuak, instituzioak, ikasleak eta abar, batez ere euskal irakaskuntza defendatzen dugunok, bakoitza geure aldetik ari gara lanean eta hau aldatu beharra dago. Nik hurrengo urteetarako eta euskal irakaskuntza gurutzada batean dagoela ikusita, ados gauden erakundeen aldetik itun bat egitea proposatuko nuke, nahiz eta bakoitzak bere berezitasunak eduki, sare ezberdinetakoak izan, ideologia ezberdinetakoak. Baina azken finean, erakunde askori batzen gaituena euskal hizkuntza eta euskal kultura defendatzen ditugula da, euskal ikuspegia dugula irakaskuntza edukietan.

Jose Luis Larrea-EILAS: Geroari begira jarrita ez dugu iritzi finkorik

hartu oraindik. Argi dago lehenengo etapa euskal curriculumaren zein den definitzea izango litzatekeela. Horretarako lehenengo pausoa irakaskuntzan mugitzen garenon artean zerbait egitea izango litzateke, hemen aipatu diren akatsei, erruei irtenbidea ematen diegun ikusteko.

EILASen apustua euskalduntzearen prozesu horri gogor eustea da, bai Basakongadetan eta are gehiago Nafarroan.

Ikastetxe batean egonda, nik irakasle bezala, zer jarrera izan beharko nuke?

Patxi Ezkiaga-FERE: Nik uste dut irakasleria animatu egin behar dela euskararekiko militantzia ez galtzeko. Azken urteotan zerbait sumatu baldin badut hori izan da, euskararekiko militantzia galdu egin dela. Hor ere du batzuk ezarri dira, halaberharrezko mugak jarri dira: B eredu, D eredu, EGA... Jende asko horra iritsi da eta prozesuan jende asko erre egin da. "Honaino iritsi naiz, muga jo dut, topea jo dut, hortik aurrera nere barruko sentimendu goxoenak euskaraz adierazteko gauza ez naiz, beraz atzerako bidean jarri naiz eta atzerako bidea egin dugu" pentsatzen dute askok. Toki askotan ikusi dut hori. Hor irakasleok nolabaiteko birkonbertsio bat egin behar dugu eta horren behar larria ikusten dut nik. Euskaren militantzia hori gure artean suspertu behar dugu eta baita honekin batera doan pertenezia zentzua ere. Irakasle batek hori garbi badauka, etor daitezke etor daitezkeen legeak. Azken batean klasea irakasleak egiten du. Ez dut uste dekretu hau hemen aplikatuko denik, orain arte egin den praxia guztia hankaz gora jarriko lukeelako, eta ez da posible. Ez da posible dekretua aplikatzea.

Hauxe da azaroaren 18ko mahain-guruak eman zuena. Hasieran esan bezala, ELA sindikatuak ezin zuela etorri abisatu zuen, baina bere iritzia idatzi batean bidali zuen. Honoko hauxe da.

Diseinu curricularraren eztabaida dela eta

ELA-Irakaskuntzaren iritziz curriculumaren inguruan sortutako eztabaida ez da momentuko arazo soltea, baizik eta testuinguru zabalago batean ematen ari den prozesuan eman duten beste aurre-pauso adierazgarri eta esanguratsua.

Azken boladan berri larri ugari azaltzen ari zaizkigu, irakaskuntzan eta irakaskuntzatik kanpo, zentralizazio bidean. Horien artean ezin dugu aipatu gabe utzi gure lan sindikal zuzenean eragin argiena eta gogorrena dituztenak: formakuntza arloan FORCEM delakoaren eragina hemen lortutako akordioaren finantziaketa kolokan jartzeko, Gizarte Segurantzza mailan Elkarte Autonomoaren ahalmenak bertan behera uzteko, edota oinarrizko legediaren erabilpena Estatutuak eta gaintzeko lege arruntak berak onartu dizkiguneskubideak zapuzteko.

Dinamika bera ematen ari da lan harremanen arloan. Estatu mailan irakaskuntza pribatuko zenbait lan-hitzarmenetan harremanak zentralizatu nahi dituzte beste lurralde eremutan gai garrantzitsuenak (soldatak, lanegunak eta abar) aldatzea debekatuz. Irakaskuntza publikoan eragin zuzena izango duen "Funtzio Publikoaren Oinarrizko Estatutua"ren zirriborroa ere bide berdina jorratzeko prestatu dute.

Ezin dugu ahaztu "MEC"en asmoa hezkuntza gaiak elkarte autonomo guztietara transferitzea dela, baina hau gauzatu aurretik dena lotua, eta ongi lotua, utzi nahi dutela. Bide batez, gaur egun

arlo hori bere esku dutenei ere murrizketa bideratu nahi diete, agian gainontzeko administrazioei "bide egokia" zein den argi uzteko asmoz.

Testuinguru honetan eta erakusten duten harrotasunean kokatu behar dugu diseinu curricularraren aldaketaren inguruan sortutako istilua. Gai honetan ere Madrilgo Gobernu eta PP bakarrrik ez daudela esan beharrean gaude, beste zenbait erakundetako kideen laguntza ere badute era honetako neurriak hartzeko.

Gure iritziz hau geure eskubi-deei egiten zaien beste eraso zuzen bat da. Asetu ezinik daude eta ez dute mugarik bere zentralizazio bidean. Ez da nahikoa lortutako akordioak baliogabetzea, beren interesekin bat ez datozen legeak bete gabe uztea. Orain curriculumaren edukiak aldatzeaz gain metodologia bera ere inposatu nahi dute. Hain gai garrantzitsuak ez balira adarra jotzen ari direla pentsatzeko ere!!!

Egoera honen aurrean gure ustez nahitaezkoa da erakunde guztien (Guraso Elkarte, Patronal, Alderdi Politiko, Elkarte Pedagogiko eta abar) jarrerak argitzea eta salaketa kanpaina gogor bat egitea. Azkenean Madrildik beraien ikuspuntua inposatu nahian jarraituko balute, "pase forala" (besterik gabe, ez betetzea) ematearen alde gaude. Bada garaia hainbesteko harrotasunari aurre egiteko.

Jesus Mari Larramendi
ELA-Irakaskuntzako
idazkari nagusia

Adierazpen eta erreakzioak

Esperanza Aguirre - PP

“Neurri guztiak kalitatea hobetzeko, zuzentasuna lortzeko eta askatasuna defendatzeko hartu dira” 97- XI- 12

“Ministeritzak eztabaida maila akademikoan planteatu du, eta inolaz ere ez die eragiten autonomien hezkuntza esku-duntzei” 97- XI- 12

“Erreformaren helburua prestakuntza amankomuna bermatzea da, eta hori hezkuntzako edukiek zehaztasun minimoa baldin badute lor daiteke” 97- XI-12

Inaxio Oliveri, EAEko Hezkuntza sailburua

“Dekretuak ez du ematen alde txarrak eta onak bereizteko modurik eta alternatibak egiterik ez dagoenez plana bertan behera uzteko eskatuko diogu” 97.XI-19

Javier Marcotegui, Nafarroako Hezkuntza kontseilaria

“Ez da zuzena guk dekretua onartu dugula esatea. Baina Bigarren Hezkuntzako Humanitateen egoera errebisatzea ongi letorke” 97-XI-22

Jordi Pujol, Generalitateko Lehendakaria

“Nire desadostasuna erabatekoa da. Gehiegitan egiten dugu

topo horrelako sorpresekin” 97-X-24

Joxe Joan Gonzalez de Txabarri - PNV:

“Talde parlamentarioen eta PPren Gobernuaren artean kolaborazio mekanismoak ezartzea proposatzen dugu erreformaren nukleoa bere osotasunean lehenertzeko” 97- XI- 12

Tasio Erkizia, HB

“PPk eskola ideologizatu nahi du eta haurrei inguruko errealtatea ezagutzeko duten eskubi-dea ukatu nahi die, printzipio pedagogiko guztiei aurre eginez” 97-XI-19

Antonio Campos, Ikastolen Federazioko lehendakaria

“Momentuz gehiago da arazo politikoa eskolakoa baino, eta beraz, momentuz politikoen konpon dezatela” 97-XI-5

Ikasle Abertzaleak:

“Haien eredia baztertu, haien dekretuei muzin egin, eta gure eredu propioa garatu behar dugu. Euskal edukiak landu, euskal historian hausnartu, euskal curriculum osatzen joan... Hori da denbora gehiagoz atzeratu ezin daitekeen eginbeharra” 97- XI- 12

“Utz ditzala Oliverik bere deklarazio hipokritak, eta pasa dadila ekintzetara, Nafarroa eta

Iparraldeko erantzule akademikoekin batera euskaldunon irakaskuntzaren alde eginez” 97- XI- 12

Luis Sanciso, UGT Irakaskuntzako arduraduna

“Balorazio negatiboa egiten dugu, testua kontsultatu eta kontsentsuatu egin behar zuelako autonomiekin” 97-XI-5

Juanma Aramendi, CCOOko kidea

“Benetako gakoa ez dago edukietan, baizik eta ikasleen arazoak bideratzeko hartzen diren mekanismoetan” 97-XI-5

Joan Pages, Giza Zientzitateko Didaktika irakaslea Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan

“Dekretuan ez dira hezkuntza arazoak aztertzen. Planteatzen dena Gobernu eta autonomien arteko konpetentzia arazoa da, klasetan zein nazionalismo mota irakasten den jakiteko”. 97-XI-2

Cesar Coll, LOGSEren inspiratzailea eta Bartzelonako Unibertsitatean Hezkuntzaren Psikologian katedraduna

“Humanitateen erreforma honek hezkuntzaren atzerapausoa suposatzen du”. 97-X-31

GUTUNAK

Zuen kezkak,
iritziak,
desadostasunak
itxaropenak,...
adierazteko
lekua izan nahi
du.



Berriak

Bidal itzazu zure burutapenak irakasle
euskaldunon aldizkarira

ABENDUA



Duina: ikasle koordinadora berria



Euskal Herri ikasleak biltzen dituen Duina koordinadora sortu berri da. Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan lanean hasi da jada. Ia 50 ikastetxetako ikasleak bere arazoei aurre egiteko batu eta batzartzen hasiak. Koordinadoraren gazteek bizi duten bizibaldintzei aurre egiteko sortu da eta hleburua aterabide kolektiboa bultzatzea da. Langabezia, txirotasuna, gurasoekiko menpekotasun ekonomikoa, irakaskuntza sistema eta abar dira gazteon kezak. Egoera honi aurre egin nahia taula programatikoa kaleratu dute eta hemendik aurrera mobilizazioak egiten hasiko dira.

Ekitaldiak

“Mari Errauskin” euskarazko opera arrakastatsua

Azaroak 22, Santa Zezili eguna, aurten berezia izan da Arrasaten. Musikarien egun honetan estreinatu zen San Viator ikastolako 140 haurrek antzeztutako “Mari Errauskin” opera. Arrasateko Amaia antzokia erabat bete zen larunbata eta igandean ikuskizun berezi hau ikusteko. Juan Azurmendik konposatu du euskarazko opera hau eta hasiera-hasieratik euskaraz pentsatua izan da. Horregatik, euskarazko lehenengotako opera bihurtu da.

Orain dela bi urte hasi ziren ideia aurrera eramaten eta bere fruituak eman ditu. Guztira 6 eta 14 urte bitarteko 140 haurrek hartu dute parte eta hauekin batera Goikobalu Abesbatzako zortzi abeslarik eta Arrasate Musikal akademiako orkestrak.

San Viator ikastolako Musika Saileko arduradunak oso gustura gelditu dira emaitzarekin eta emanaldi gehiago egiteko prest daude. Oraingoz bat finkatu dute: abenduaren 12an Gasteizen izango dira.

Goierri eta Urruñako ikastolak bat eginda

Mugaz bi aldetako ikastolak elkarri laguntzeko elkatu ziren Ordizian. Beasain, Ordizia, eta Lazkaoko ikastolek Urruñako lagunei ongi etorria eman zien eta denek elkarrekin pasa zuten eguna Ordizian. Ekitaldi nagusia gauean burutu zen bertsolari eta abeslarien laguntzaz.

Sarrerekin ateratako dirua Urruñako ikastolari laguntzeko izanen da. 1993an sortu zuten ikastola hainbat gurasok. Gaur egun 25 haur dabilta eta dauden etxe prefabrikatua txikia izateaz gain, garesti suertatzen zaie. Horregatik Herriko Etxeari lurra eta

laguntza emateko eskaria egin die eta erantzunaren zain daude orain.

Haur-antzerki

Erakustaldia Donostian

Hilaren bukaeran Donostia inguruko ikastetxeetako haurrek antzerki emanaldietara joateko aukera izan dute. Personal Asociados taldeak 6 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendutako egitaraua eskaini du. Peter Robertsk “Marratxao” antzezlanak eskaini du eta Ados taldeak “Robinson Crusoe”. Emanaldiei loturiko ekintza pedagogiko eta osagarriak ere eskaini dituzte. Azken finean, ikastetxeetan eta kultur ekitaldietan dagoen hutsunea betetzea izan da antolatzaileen helburua.

Gasteizen ere antzerkia indartsu

Gasteizko Udalak eta Paraiso taldeak ere ikasleei zuzendutako antzerki egitarauari hasiera eman diote. “Haur eta gazteentzako antzerki aretoa” izena eman diote 97/98 ikasturteko antzerki egitarauari. Sambhu Teatro, Caramba! eta Paraiso antzerki taldeak izango dira parte hartuko dute taldeak. Aurtengoa laugarren edizioa izango da. Ohiko antzerki emanaldiez gain, beste bi atal berri ere baditu ikasleak eta irakasleak inplikatzeko dituen. Hilabete honetan hasi dira emanaldiak eta maiatz bitartean luzatuko dira.

Emakunderen jardunaldi arrakastatsua

“Haur Eskolak, beharizan sozial bati erantzuna ematea” izeneko jardunaldiak azaroaren 13 eta 14an ospatu ziren. Emakunderen antolatutako jardunaldi hauen helburua haur eskolen paperari buruzko hausnarketa egitea zen. Haurren eta familien beharrik kontuan hartzen dituzten zenbait esperientzia aurkeztu ziren.

Argitalpenak



Lurra zain dezagun

Gaiak
157. orr.

Liburu honek gure planetaren kontserbazioan dagokigun

erantzukizunaz dihardu. Lurrak egiten dituen mehatxurik larrienak eta hauen aurrean har ditzakegun neurriak erakusten ditu. Liburaren oinarri hiru gai dira, hirurak ere inguruarekin zerikusia dutenak: euri-ohianen desagertzea, basamortutzea eta euri azidoa.



Erljioak munduan

Gaiak
169. orr.

Liburu hone-tan Lurrean eman diren sinismen erlijioso guztien sorrera, hedapena eta sustrai sozialak azaltzen dira. Horrekin batera sinismen horiek ekarri dituzten ekarpen kultural eta artistikoak ere bai. Lan osatzeko eta ulerterrazagoa egiteko kronologiak, erlijioen hitz nagusiak eta kuadro konparatzaileak agertzen dira.

Eskuratu berrien albisteak

HABE

25. orr.

HABE Liburutegiak bi hilabeteko argitaratzen duen libuxka dugu. Liburutegian jasotzen diren dokumentuen berri ematen du bere orrialdeetan. Gaika antolatu dago bilaketa errazteko. Horrela Hizkuntzaren didaktika, Soziolinguistika, Euskalgintza, Elebitasuna, Psikolinguistika, Hizkuntza-

laritza, Pedagogia, Soziologia eta beste hainbat arlotan argitaratutako liburu, aldizkari eta materialen zerrenda topa daiteke. Interesa duen erakunde, ikas-tetxe edo norbanakoei zuzendua dago eta HABE Liburutegira deituz eskura daiteke.



Industrializazio garaia Euskal Herrian.

1870-1930

Ostadar-Ikastolen Elkarte
CD-ROM formatoan

Gipuzkoako Ikastolen Elkarteak izenburu honekin atera duen CD-ROMa DBHrako sortzen ari den testu materialaren osagarri gisa eraiki da. Gizarte Zientzien arloaren barruan DBHko ikasleei, hots 12-16 urte bitartekoei zuzendua dago bereziki. Egileen asmoa ikasleek Euskal Herriko industrializazio prozesua bere osotasunean ezagutzea eta gaur egungo egoera ulertzeko baliagarria izatea da. Horretarako edukia lau atal nagusitan banatu dute: Ekonomia, Gizartea, Politika eta Kultura. Osagarri bezala beste hainbat tresna ere topa daitezke: ardatz kronologikoa, fototeka, bideo-terka, hiztegia, biografiak eta bertsoak.

Ekin Bilduma Ibaizabal

Ibaizabalek Ekin bilduma berria aurkeztu du. Lehenbiziko bost liburuak kaleratu ditu oraingoz, baina

gehiago ere etorriko dira aurrerago. Hauexek dira liburuok: Joxemari Iturrladeren "Lehen amodioa Suedian", Aitor Aranaren "Uxue eta Urtzi", Juan Manuel Etxeberriaren "Jaun Zuria", I-aki Zubeldiaren "Nire aita ezin izan nuen salbatu" eta I-aki Bernaolaren "Lau idazluma ahizpak".



Haur jolasen abestiak

Hik Hasi

Izenburu honekin musika-zinta eta CDa kaleratu ditugu. Haurrak euskaraz jolasteko

22 abesti bildu ditugu lan honetan. Josi Oiarbidek moldatu ditu hitzak eta musikaz Xabier Zabala arduratu da. Guztira Euskal Herriko bost ikas-tetxetako 55 haur aritu dira abestiak grabatzen. Abesti alaiak eta erritmo bizikoak entzun daitezke.



Txirulaz

Xabier Zabala

112. orr.

Hik Hasi

Liburu hone-tan txirulaz jotzeko 66 abesti bildu ditu Xabier Zabala Donostia-ko Ekintza ikastolako irakasleak. Bere lanean duen esperientzia ikusita behar hori somatzen zuen eta hutsune hori betetzera dator liburuak. Euskal kanta tradizionalekin batera gaur egun modan dauden abestiak ere txirulaz jotzeko aukera ematen du. Hauen artean mundu zabalean ezagunak diren doinuak ere badaude. Abesti bakoitzak bere hitzak eta notak ditu eta txirulaz jotzeko moldatuak daude.

Haurrak eta telebista

Marrazki bizidun eta filmeez gain, ETBk haurrei zuzendutako programak ere baditu: Ikusgela, Munduan zer berri? eta Superbat, besteak beste. Superbat saioaren barruan beste atal berri bat estreinatu berri du: "Jakizu aizu". Egutero 17.30ean ikusi ahal izango da gaztetxoei zuzendutako heziketa tarte hau. Natura, zientzia, eguneroko bizimodua eta abar landuko dira ordu erdian. Kapitulu bakoitzean gai bat baino gehiago ukitzen dira galdera-erantzun sisteman. Aurkezlerik gabe, gizon-emakume baten ahotsak entzungo dira; batek galderak egingo ditu eta besteak erantzun. Rutenortekoiztetxearen eta ETBren artean egindako lana da "Jakizu aizu".

Ikusgela saioa, berriz, astelenetik ostugenera bitartean egutero ikusi ahal izaten da 10.55etan. Natura, gizarte zientziak, teknologia eta komunikazioari buruzko gaiak lantzen dituzte. Ostiraletan, berriz, Munduan zer berri? saioak hartzen du lekukoa. Aktualitateari buruzko albistegia da hau. Biek modu atsegina eta entretenigarrian gaztea heztea, informazioa ematea dute helburu.

Kanpainak

Erretzen uzteko kanpaina

EAEko Ongizate Sailak eta Edex Osasun Baliabideetarako Zentroak tabakoari aurre egiteko prebentzio kanpaina jarri dute martxan. DBHko 83 zentrotan jarri da martxan eta tabakismoa prebenitzeko helburua duen ikasgaia eskainiko zaie 13.000 ikasleri. Horretarako ikastetxeei material didaktikoa emango zaie, hau da, txosten batzuk. Hauetan tabakoaren kontsumoaren inguruko datuak, 10 ekitaldi praktikoa eta erretzeari uzteko aholkuak agertzen dira erretzen ari diren irakasleek ohitura hori utz dezaten.

Dagoeneko 100 irakasle prestatu dira irakasgaia emateko. Irakasleek Edexeko 20 kideren laguntza izango dute: inkestatzaileak, soziologoa eta psikologoa. Gaur egun 15-20 urteko gazteen %37 erre egiten du. Datorren urteko martxoa bitartean proba modura erabiliko da proiektua eta emaitzak onak lortzen baldin baditu Europa osoara zabalduko da. Belgikan ere ari dira garatzen eta bi esperientzien emaitzak batera aztertuko dituzte.

Ehunen erreziklaia

San Markos Mankomunitateak bulzata ehunak erreziklatzeko kanpaina jarri da martxan Astigarraga, Donostia, Hernani, Lasarte-Oria, Lezo, Oiartzun, Pasaia, Errenteria, Urnieta eta Usurbilen. Herri hauetako ikastetxeei zuzendutako kanpaina da. Guztira 134 eskola eta 24.000 ikasle izango dira parte hartuko dutenak.

Kanpainaren helburua ehun, oihal eta arropak biltzea eta banatu edo erreziklatzea da. Horretarako Traperos de Emaces, Caritas eta Aztarnak taldeei emango zaie ikastetxeetan jasotako materiala. Egoera onean daudenak behar handiena duten jendearen artean banatuko dituzte. Eta erabiltzeko moduan ez daudenak erreziklatu egindo dituzte garbiketarako, arbelerako edo beste zerbaiterako trapuak egiteko. Lehenengo bilketa abenduan egingo da eta bigarrena udaberrian. Hasieran ikastetxeetan bilduko da materiala baina gerora herriko hainbat puntutan ere bai.

Kanpaina aurrera eramateko irakasle eta zuzendariekin bilerak egingo dira. Ikasleei ere ehunei buruzko kuadernoak, triptikoak eta informazio orriak banatuko zaizkie, batzuk beraientzat eta beste batzuk gurasoentzat, hauen kontzientziazioa oinarritzeko baita.

Tolosako 15. Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia



Azaroaren 29az gozotik Tolosan txotxongilo talde ezberdinen lanak ikusteko parada dago. Haur zein helduentzat egitarau zabala prestatu dute talde asko bildu direlarik bertan. Euskal taldeen artean Txotxongilo Taldea, Imagina-T, Cobaya Teatrok, Behi Bi«s eta Antzezkizuna dira aurrean Tolosan. Bost taldeetatik hiru lan berriak estreinatuz etorri dira: Txotxongilo Taldea "Eman eta gero" lanarekin; Imagina-T "Una de xatellitex" ekin eta Behi Bi«s "Zuk zeuk..." ekin. Abenduaren 8a bitartean Tolosara hurbildu eta txotxongilo emanaldiak ikusteko aukera duzue.

Ikonoteka baten antolakuntza (II)

Imanol Agirre Arriaga

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Irakaslea
Psikologia eta Pedagogia Departamentua



Ikonotekaren eraketa Eginkizunaren garapena

Aipatu dugun bezala, era honetako eginkizun batek ez du hasiera eta bukaera garbi bat. Modu aunitzetan has gaitzke eta bide askoetatik garatu ere bai. Batzuentzat errazena liburuak erostea izango da eta hortik abiatuko dira bere lanetan. Bbestentzat, berriz, ikastetxetik gertu dagoen museoko irudien araketa izango da biderik eragingarriena. Horregatik, hemen proposatuko duguna iradokizun orokor bat besterik ez da izango.

Bilketa

Hasteko, hurrei aldizkarietatik, egutegietatik edo antzekoetatik arte irudiak moztu eta gelartzeko eskatuko

genieke. Ariketa honek, besteak beste, Arteak haurren eguneroko bizitzan duen garrantziaz ohartzeko aukera emango digu.

Bide honetatik lortutako materialarekin Artea zer den eta zer ez den gaia jorratzen has gintezke.

Bilketaren bigarren atala, sailkapenarekin loturik, estiloen ezaugarrien bereizketa izan liteke. Eta zergatik ez, egile beraren estiloen xehetasunen ezaugupena. Sarritan kontrakoa esan bada ere, ikerlari askok frogatu dute Haur Hezkuntzako haurrak gai direla arte estiloen ezaugarri garrantzitsuenez jabetzeko eta beraien arteko bereizketak egiteko.

Argi dago gure helburua ez dela arte historiagile batena bezalakoa eta estilo-

en bereizgarritasunak jorratzerakoan haurrentzat eskuragarri diren hitzetan egin beharko genukeela, jolasen bitartez edo antzeko metodologia ludikoak erabiliz. Hau, noski, irakaslearen jakin-duripean gelditzen den kontua da.

Sailkapena eta materialaren kokapena

Eginkizunaren atal honetan fitxategi informatikoa eta materialaren gelako kokapena bereizi behar dugu. Lehenengoari dagokionez, gaur egun dauden datu-baseak ikusita, ez dago arazorik, edozein eremutatik abiatuz arazorik gabe lor dezakegulako bilatzen ari garen informazioa. Baina irudiak, fisikoki, gure gelan nolabait antolatu behar ditugu haurren eskuragai jartze-



ko. Ikonoteka benetan erabilgarria eta eraginkorra izan dadin materiala antolatu egin beharko dugu irizpide batzuei jarraituz.

Sailkapenerako aukerak ugariak dira, baina antolaketarako kontuan hartu beharko genuke ikonotekak izango duen erabilera. Ez da batera praktikoa, esate baterako, estiloetan oinarritutako sailkapena egitea Haur Hezkuntzan. Era berean, teknikan oinarritzen den sailkapena erabat antzua izango zaigu Lehen Hezkuntzako amaieran edo Bigarren Hezkuntzan.

Gure iradokizuna hau da: lehen ikasturteetan eta ikasgaiak interes guneen inguruan garatzen diren kasuetan, gaia izango litzateke sailkapenerako eredurik egokiena. Beste mailetan, gaia, estiloa edo elementu plastikoaren agerpenaren arabera egindako sailkapena izan daiteke egokiena, irakasle eta zentro bakoitza-

ren programen eraketan arabera.

Metodologiari dagokionez, gure iradokizuna hau da: irudien multzoak guztion artean bereizi ondoren, ikasleak taldeka antolatu eta "ikerketa" taldeak sortu irudiari buruzko ahalik eta informazio gehiena lortzeko. Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehen kurtsoetan ikaslearen ardura ezin izango da horrenbestekoa izan, nahiz eta irudien bereizketaren oinarriko prozedurak beraiengan jarri.

Ikonotekaren eraketa ikasgai gisa

Arestian jarritako lana neketsuegia izan daiteke irudien bilduma arrunta egiteko. Baina sumatu ahal izango zenuen bezala, biltzeko jardun hauetan garrantzitsua ez da irudien pila bat egitea, ikasleengan Artearekiko jarrera



sortzea baizik: artelanak bilatuz, orduarte bere bizitza apaintzen zuen ikonografia aldatzea.

Gure ustez ikonoteka baten eraketaren ondasun pedagogikoak bi arlotan ematen dira.

- 1) Irudiak bildu eta eratzeko orduan
- 2) Sailkatutako irudiak erabiltzerakoan.

Honekin ikonotekaren osakuntza bera ere didaktikoki oso emankorra izan daitekeen eginkizuna bezala antolatu beharko genukeela esan nahi dugu. Kontua ez baita irudiak edozein modutan biltzea, biltzerakoan landu daitezkeen zenbait eduki artistikoei arreta jartzea baizik. Eraketarekin batera, materialaren prestakuntza soiletik arago, Artearen eremuko oinarriko kontzeptuen erabilpenerako sarrera bideratzen hasiko gara, arlo honetako berezko hizkera eta hiztegia sendotuz, une berean.

Garbi dago haurren adinaren arabera edukiak aldatu egingo direla edo aldatzen ez badira ere, sakontasun gehiago edo gutxiagorekin ikusiko ditugula. Ez gara oso zerranda luzea egitearen aldekoak. Gehienetan edonork bere eguneroko lanean erabiltzen dituen eduki arrunten azalpen hutsa besterik ez direlako. Baina orokorrean esanda, ikonotekaren eraketarekin batera honako eduki hauek lantzea iradokitzen dugu:

Kontzeptuak:

Haurrei irudiak ekartzeko eskatzean azaldu egin behar diegu ez duela edozein irudik balio; alegia, artelanen irudiak direla behar ditugunak. Hona hemen bada, landu beharko dugun Arte Hezkuntzaren oinarri-oinarriko kontzeptu bat: "arte"; zer den eta zer ez den artea. Horren definizioak bilatu, beraien usteak jaso, erkatu eta eztabaidatzea izan daitezke kontzeptu honetaz jabetzeko bideak.

Honekin batera, izenburuak jartzeak, egileak identifikatzeak edo lanak sailkatzeak

arte historiaren nozioaren oinarria jartzeko oso bide egokitzat jotzen ditugu.

Ikonoteka hazi ahala, hortaz, definitu eta zehaztu ahal izango ditugun kontzeptuak era honetakoak izan daitezke: Marraskia, Margoa, Argaskia, Eskultu-

ra, Arkitektura, Artista, Egilea, Museoa, Bilduma, Ikonoteka, eta abar.

Hurrengo faseetan irudiak sailkatzearen aitzakiarekin elementu plastikoak aurkeztera (espazioa, kolorea, forma, eta abar) edo arte estiloak aipatzera sar gintezke.

Prozedurak

Bistan da ikonoteka osatzeko orduan erabiliko diren prozedurak eraketa eta antolakuntza berarekin zerikusia izango dutela: bildu, aukeratu, sailkatu, aztertu, aipatu, antolatu eta abar.

Ikonotekaren balioa, arlo honetan, Arte Hezkuntzatik haruntzago doa, gainera. Eraketak eskatzen dituen ohi-turak eta prozedurak oso baliagarriak baitira beste arlo eta eginkizunetarako.


Jarrerak

Arte Hezkuntza arloan sor daitekeen jarrerarik desiragarriena hauxe da: arte-arekiko interesa eta artearekin gozatzeko eta bizitzeko irrika sortzea. Honekin batera, ikonoteka batek arte bilduma pertsonal eta txiki bat osatzen hasteko nahia edo bere karpetak edo gelako hormak arte irudiz apaintzeko gogoia sor lezake haurrengan. Bestalde, ikonotekaren eraketak eskatzen duen arreta eta antolakuntzak era horretako jarrerarako grina bere eguneroko bizitzan sor lezakete.

Ikonotekaren erabilpena

Ikonotekaren erabilpena Arte Hezkuntzako klaseetan

Arte historia, artelanen azterketa kritikoa edota balorazio estetikoak Haur eta Lehen Hezkuntzarako ez direla eginkizun aproposak pentsatzen dute askok. Baina 1995.ean Estatu Batuetako "National Art Education Association"-ek ikerlari askoren lanetan oinarriturik proposatu duenari kasu eginez, Lehen Hezkuntzan ez ezik Haur Hezkuntzan ere artearen erabilpena haurren garapen orokorrerako oso estimagarria izan liteke. Gu ere horretan gaude eta horregatik uste dugu Arte Hezkuntza arloan ikonotekaren materialak oso erabilgarriak bilaka daitezke-



ela betebeharraren honetan.

Gure ustez ikonotekaren bidez jorra beharrekoak izango lirateke Arte Hezkuntza arloan lantzen diren bi eremu nagusi hauek:

1) **Azterketa kritikoarena:**

2) **Ekoizpen plastikoarena.**

Orain aurkeztuko ditugun ereduarekin ikonotekak eduki lezaken balio pedagogikoa erabat agortu nahi izan gabe, hona hemen gida gisa eremu bakoitzetarako zenbait zehaztapen.

Azterketa kritikoarena

Aldez aurretik argitu beharra dago kritikaz ari garenean Arte Hezkuntza arloan zer esan nahi dugun. Kritika, artelan batean aurki daitekeen informazio guztia ateratzeko helburuarekin egiten den behaketa eta mintzamen antolatua izango litzateke.

Gure iradokizuna garatzeko Feldman-ek proposatutako kritikaren lau atalak jorratuko ditugu:

1) **Deskribapena:** ikusi daitezkeen ezaugarrien aipamenen zerrenda egitea da. Deskribapena lantzeko egin daitezkeen ariketen adibideak hauexek izan daitezke: "Minutu batez behatu eta ikusitakoa gogoan hartzen saiatu.

Ondoren, arte obralanari bizkarra emanez artelanean zegoena izendatu".

2) **Analisia:** artelan batean aurkitutako ezaugarrien arteko harremanen zehaztapenari dagokio analisia. Hauek azterketa honetarako galderak izan daitezke: Zein da irudirik garrantzitsuenak? Zein dira ordezkioak? Nola banatzen dira koloreak? Isilak ala zaratatsuak dira irudien arteko harremanak?

3) **Interpretazioa:** lanak bere baitan biltzen dituen ideiak, sentimenduak, giroa eta egoera animikoak azalarazteko burutzen den eginkizuna da. Interpretazioa lantzeko era honetako galderrei erantzutea izango litzateke aproposena: Nola sentiarazten zaitu obra honek? Zer-nolako pertsona mota da emakume (gizon, haurra, mutil, neska) hori? Zertaz mintzatuko zinateke elkarrekin topo eginez gero? Zein izenburua jarriko zenioke koadro edo eskultura honi?

4) **Irizpena:** kontua ez da gustukoa dut ala ez dut aitortzea. Aurreko ataletan bildutako informazioa erabiliz ondorio bat ateratzea da. Irizpena lantzeko galderak hauek izan daitezke: Artelan hau zure etxean paratzeko aukeratuko al zenuke? Zein gela izango



litzateke berarentzat egokiena? Zergatik?

Esan beharrik ez dago era honetako ariketak, gehien bat Haur Hezkuntzan, adinarentzat egokia den metodologia ludikoa erabiliz aurkeztu behar direla.

Ekoizpen plastikoarena

Orokorrean esanda ikonoteka artelanen analisirako eta historia edo iritzi kritikoaren edukiak lantzeko erabiltzen diren bezala, ekoizpen plastikorako ere oso laguntzaile ona izan daiteke. Gure ikonotekaren artelanak beti eskuragai izan beharko ditugu azterketarako ez ezik haurren ekoizpen plastikoen lagugarri izan daitezen.

Irudiak oso aprobetxagarriak izango dira norberaren lanak burutzeko eta zalantza uneetan iradokizunak bilatzeko. Haurrak artelanetatik zenbait eredu jaso ditzake bere lanetan erabiltzeko. Gure ikonoteka, besteak beste, plastikaren bidez erabakitako arazo formal, narratibo eta emozionalen katalogo edo bilduma paregabea dela pentsa-

tu egin beharko dugu. Haurrak bere ispilua artista handien lanetan aurki dezake. Hala ere erabilpen honetan kontu handiz ibili behar dugu, metodologia kontuei arreta jarritz. Kontua ez da haurrak artistari kopiaitzea. Aitzitik, oso modu orokorrean eta azaletik aurkeztuta, gure irudiak erabili beharko ditugu haurrei ereduak emateko, historian zehar artistek arazo plastikoen aurrean emandako erantzunak ezagutarazteko, elementu plastikoen balio narratiboa edota mundu emozionalaren adierazpidetasuna azaltzeko. Haurrak artelanetan, gure laguntzarekin, arazo plastikoen irtenbideak eta proposamen berrien abiapuntuak aurkitu beharko ditu berak hartutako bideekin erkatuz eta interesatzen zaizkion erantzun plastikoak bereganatuz eta jorratuz.


Ikonotekaren erabilpena arte klaseetatik kanpo


Arte Hezkuntza zuzenaren eremutik kanpo ere, ikonotekak oso nabarmena izan ohi den beste hutsune bat bete ahal izango du. irakaskuntzak gero eta gehiago bilatzen du bere diskurtsoaren sostengua irudian, eta batez ere oinarritzko mailetan. Zaila da irudiaren beharrik ez duen ikasgairaren bat aurkitzea. Sarritan ikusten dugu Haur Hezkuntza mailan irudi horiek estetikoki pobre samarrak direla. Zergatik ez oinarritu artelanetan gure ikasgaiak garatzeko? Zergatik ez landu garraioari edo giza gorputzaren atalei buruzko ikasgaiak artelanen laguntzaz?

Kontuan hartu behar dugu hau horrela eginez gero gure etekin pedagogikoa bikoizten ari garela. Alde batetik, beste edozein irudi motarekin bezala, gaia arintzea lortuko dugu. Eta bestalde, hau da artearen erabilpenaren abantaila, haurren baliabide ikonikoak aberasten

ari gara eta, bide batez, gizakiaren kulturaren atal nagusienetakoa den honen jakinaren gainean jartzen. Bazter ditzagun bada, gure fitxa eta testu liburuetatik sarritan estereotipatu eta ergel hutsak diren irudi horiek eta erabil dezagun gizakiak, historian zehar garatutako irudimenaren aberastasuna. Haurraren sentiberatasun estetikoak eskertuko digu, zalantzarik gabe.

Hona hemen bada, baliabide-eginkizuna izan daitekeen tresna. Sarritan edozein asmo aurrera eramateko oinarritzko baliabideen eskasiaren pean mugitu behar izaten dugu. Arte Hezkuntzan dagoen gabezia handienetakoa hauxe da, seguraski. Irakasle askok Artea edo Artearen bitartez erakusteko aurkitzen duten oztoporik nagusiena, Artea bera eskuratzea izan ohi da. Gure oraingo saiakera, arazo honen konponbidea martxan jartzeko ahalegintxoak besterik ez da izan. Zuei dagokizue orain zuen esperientzia eta jakinduria erabiliz hemen plazaratutako ideiak borobiltzea eta hobeagotzea.





Azken argitalpenak

